

txintx rri



Horra Olentzero eta Mari Domingi!

Ikazkina, Mari Domingi eta Xixuko bildu ditu Porrotzek, Gabon egunean Lasarte-Oriara etorri aurretik. 03-05

TXINTXARRI



© 2018 Spin Master PAW Productions Inc. All Rights Reserved.

Abenduaren 21etik Urtarrilaren 5era

LA PATRULLA CANINA URBILEN

EKINTZARAKO ITXITURA
AUTO OFIZIALEN ESPOSIZIOA

Info gehiago: urbil.es-en



urbil.es

DOHAINIK



2019 zoriontsua
opa dizuegu.
Eguberri on!



Kalitatea dastatu

Gure ogiak:

Cristal

Molde Cristal

Parisien

Txabola

Mendiko

Txapeldun

Leña ligth

Espelta

Vital

Artoa

Salud

Artoa zerealekin

Aleman

Molino

Verde


Espelta zerealekin

Ogicol

Kurkuma, intxaurreak eta mahaspasak



Bila zabiltzan hori... ziur hemen aurkituko duzula!



Ilusioa, alaitasuna, indarra eta elkarlana



Joxe Mari Agirretxe

Urtea amaitzeko den honetan, Olentzero, Mari Domingi, Porrotx pailazoa eta Xixuko ahatea batzartu dira. Txondorra egiteko egurra mozten ari direla errepasoa eman diote Lasarte-Orian bizi izan dugun urteari. Denak ados jarri dira gertakizun ederrena zein izan den aukeratzean: EUSKARALDIA. Bakoitzak hitz batez laburbildu du bere aukeraketaren arrazoia.

Xixukok ILUSIOA nabarmendu du. Batez ere, hain lagun dituen haurrena. Nahiz eta EUSKARALDIA haientzat bereziki zuzendua ez izan, koloretako puntuak etxeko balkoi eta leihoetan eskegitzen jardun dira. Ederki ikasi dute, gainera, zer den *ahobizi* eta *belarrirrest* izatea, eta ikastetxeetan haien familien marrazkia egin ondoren, etxean "nor" den "nor" koloreztatu dute. Haiek izan dira, gainera, animatzaile sutsuenak, eta poz-pez parte hartu dute antolatutako ekimen guztietan.

Porrotxek ALAITASUNA nabarmendu du. Euskararen alde egitetik euskaraz aritzera hainbeste lagunek hartutako erabakiak sortu dio poza. Gainera, Lasarte-Orian bereziki dute herritarrek sudurra gorritzeko erraztasuna. Abestiak eta bideoklipak grabatzean, Topoko bagoietan azafataz moztarrotu eta bidaiariei jolastuz EUSKARALDIAREN berri ematean, herriko plazan kantatu eta dantzatzean, ... Euskara bizipoza da gure herrian.

Mari Domingik INDARRA nabarmendu du. Ia 200 pertsona, lepotik poltsak zintzilikatuta, larunbata goiz batez Lasarte-Oriako etxe guztietara hurbildu ziren. Aurpegian margotu daitekeen irribarrerik ederrenarekin tinbrea jo eta EUSKARALDIA

zer den azaldu, eta parte hartzera animatu zituzten herrikideak. Ekimen honetan gazteenak 16 urte eta helduenak 84 urte izateak deitu dio atentzioa gure lagunari. Ziur da Euskal Herri osora hedatuko dela hurrengo batetan aurrez hain ausarta eta zaila dirudien ekimena.

Olentzerok ELKARLANA nabarmendu du. Norbanakoak, familiak, lagunarteak, eskolak, elkarleak eta udala bat eginik ikusteak piztu dio arreta Olentzerori. Bera ohituta dago mendialdean eta landa eremuetan auzolanean aritzera, baina Lasarte-Oria bezalako herri batetan denak arraunean elkarrekin ikusteak argitu dio kopeta ikazkinari.

Porrotx eta Xixuko Olentzeroren astoarekin jolasean hasi dira halako batean, eta egoera baliatuz, Mari Domingik bere kezka azaldu dio Olentzerori. Elkarlanak urte osokoa behar duelako izan haren ustez, eta azken boladan, herriko jaietako ur jolasak, udako txokoak, Gabonetako parkea... herrian ekimenik ez duten enpresen esku uzten ari direlako udaleko agintariak, herriko eragileen kaltetan. Olentzerok arrazoia eman dio: "Herria da gorputza, hizkuntza bihotza", kantatzen zuen Mikel Laboak, eta herria higatuz bihotzak nekez egin dezakeela taupa esan dio lagunari. Hala ere, itxaropentsu begiratzen diote biek etorkizunari, azken urte luzeotako elkarlan oparora itzuliko delakoan gure herrira.

Porrotx eta Xixuko itzuli dira haien jolasetik, eta umore ona nagusitu da taldean. TXINTXARRI-ko argazkilariari begira jarri dira denak, eta oihi egin dute elkarrekin.

"BADOA URTE ZAHARRA, BADATOR BERRIA, GORA LASARTE-ORIA ETA AUPA EUSKAL IRRIA!"

Hurrengo zenbakia

txintxarri

Urtekaria

Informazio gehiago txintxarri.eus orrialdean edo sare sozialetan

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administrataria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

Publizitatea

Iraiti Zatarain.

Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Mailu Arruti, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maidier Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura eta Aizpea Amas.

Banatzaleak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde,
Iñigo Ibarburu, Mikel Valdes,
Naiara Goikoetxea.

Informatikoa

Beñat Gonzalez

PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

LAGUNTZAILEAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

Olentzero eta Mari Domingiri harrera egiteko prest da herria

Mendi aldetik jaitsi eta herritarrak bisitatzera etorriko dira datorren astelehenean. Lasarte-Oriako kaleetan barrena desfilea egin ostean, Okendo plazan bilduko dira haur eta gazteekin. Xixuko laguntzailea ere han izango da

Txintxarri

San Tomas azoka agurtu, eta Mari Domingi eta Olentzeroren zain daude lasarteoriatarrak. Atzerako kontuan ari dira dagoeneko herritarrak ikazkinaren eta Mari Domingiren opariak jasotzeko.

Horretarako, eskutitzak idatzi behar dituzte, eta horiek Olentzerori, Mari Domingiri eta Xixuko laguntzaileari emateko aukera izango dute Gabon egunean. Ttakun Kultur Elkarteak harrera ekitaldia antolatuko du egun horretarako. Bien bitartean, ahalik eta harrera beroena egiteko, prestaketa lanak egiten aritu dira herritarrak egunotan. Amaraun Klubeko gazteek otar ederrak prestatu dituzte 24ko desfilean konfetiak botatzeko,

eta talo ederrak egiten ere ederki ikasi dute.

Ekitaldi nagusia arratsaldean izango bada ere, goizean txokolatea jateko aukera izango dute lasarteoriatarrek. Horrez gain, oparien gutunak botatzeko postontzia inauguratuko dute, eta Xixuko bertan izango da eguerdira arte.

Aste honetan, TXINTXARRI-k Olentzerorekin, Mari Domingirekin, Xixukorekin eta Porrotxekin egoteko tartea izan du, eta astelehenerako gogotsu aurkitu ditu lagunak. Lan eta lan harrapatu ditu, egun handian herrira iristeko dena prest utzi nahian. Dei egin diete herritarrei arratsalde polita pasatzera gerturatu daitezten.

Loidibarrengo pilotalekutik hasita, desfilea egingo dute

Lasarte-Oriako kaleetan barrena; Porrotx bihurriak lagunduko ditu Olentzero, Mari Domingi eta Xixuko. Baita Galtzagorriak, arkumetxoak eta gainerako lagunak ere.

Gazte Klubeko eta Kuadrillategiko DBH2ko kideak ere pertsonaia mitologikoz jantzi, eta desfilean arituko dira. Sorginak, Basajaun, Tartalo, Basandere, Mari Teilatuko eta lamiek lagunduko dute Olentzero, Mari Domingi eta Xixukoren desfilea. Kuadrillategiko DBH1 mailako gazteek argi-zuziriek inapainduko dute martxa.

Amaraun Klubeko gaztetxoek, aldiz, tailerra izan dute, eta otartxoak prestatu dituzte desfilean erabiltzeko. Konfetz bete, eta herriko kaleak



Xixuko, Olentzero, Porrotx eta Mari Domingik hitzordua egin dute Gabon zahar egunean Lasarte-O

koloreztatuko dituzte ekimenak irau bitartean. Ttirriki Ttarrakako trikitilariak arduratuko dira giroari musika jartzeaz, eta Jalguneko kideek ere parte hartuko dute desfilean. Horiekin batera, nahi duten herritarrek ere parte hartu ahal izango dute. Loidibarrenen elkartzeko ordua 16:45ean da.

Ekitaldia Okendon

Okendo plazan amaituko da desfilea. 18:00etan iritsiko dira Olentzero, Mari Domingi eta Xixuko plazara, eta orduan hasiko da ekitaldia. Gozatzeko une ugari izango dituzte herritarrek.

Olentzero prestatu bitartean, Mari Domingik, Xixukok eta Porrotxek ezusteko ugari ekarriko dituzte oholta

gainera, eta musikak lagunduta dantzarako tartea ere izango dute. Ikazkinari harrera beroa egingo diote gero plazan bildutakoek; Galtzagorri eta arkumetxoek lagunduta igokoda oholtzara, eta lasarteoriatarrei hitz egingo die.

Emanaldi horren ostean, haurrek idatzitako eskutitzak eta marrazkiak jasoko dituzte Olentzerok, Mari Domingik eta Xixukok. Iluntzeko 20:00ak bitarte luzatuko da ekintza; ordu horretan herritarrak agurtu eta berriro ere mendira bueltatuko dira, gau osoan zehar lan handia izango baitute opariak prestatzen.

Antolatzaileek jakinarazi dute eguraldi txarra eginez gero Loidibarrengo pilotalekuan egingo dutela ekitaldia.

ETXEZARRETA
HARATEGIA-URDATEGIA

EUSKAL OKELA
CARNE DE VACUNO DEL PABO VASCO

ETXEZARRETA HARATEGIA

Bertako okela • Urdaitegia • Eramateko janaria

*Eguberri on eta
2019 zoriontsua izan dezazuela!!*

Hipodromo Etorbidea, 2 • Tel. 943 361 379 / 610 441 544 • LASARTE-ORIA



riara etortzeko. TXINTXARRI

Xixukok Sasoeta-Zumaburu eta Landaberri bisitatu ditu

Sorpresa polita jaso dute Sasoeta-Zumaburu eta Landaberri ikastetxeko Garaikoetxea eraikineko ikasleek. Olentzeroren laguntzaile Xixuko ahatea izan dute bisitan gazteek. Astearte goizean, Sasoeta-Zumaburura joan zen ikazkinaren laguna, eta asteazkenean, berriz, Garaikoetxean izan zen.

Olentzerori eta Mari Domingiri egun gutxi geratzen zaizkie herrira etortzeko, eta opariak eskatzeko gutunak banatu dizkie Xixukok ikasleei. Gazteek ikazkinari eta Mari Domingiri egindako marrazkiak eman dizkiote ahateari, eta txantxa jolas batean aritu dira gero.

Olentzeroren eta Mari Domingiren mezu bat helarazi die Xixukok ikastetxetako txikiei: "Olentzero eta Mari Domingi oso zoriontsu daude lasarteiatarrekin, egiten diezuen harrera beroagatik".



Xixuko ahateak Lasarte-Oriako ikasleak bisitatu ditu. TXINTXARRI



Amaraun Klubeko gaztetxoek talo ederrak egin dituzte talogile lasarteiatarren laguntzarekin. TXINTXARRI



Galtzagorriek ere parte hartuko dute abenduaren 24ko desfilean. TXINTXARRI

Turkia

2019 zoriontsua opa dizuegu!

IRTEERA 2019ko ekaina
Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

T.: 943 373 613 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria

MAITE

ESTETIKA ARETOA
2019 zoriontsua opa dizuegu!

Orutegi malgua daukagu
Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria
Tel. 943 37 08 45

Gabon hauetan, mimatu zaitez! eta oparitu gertukoei ongizatea!

opari-txartelak ditugu zerbitzuetan erabiltzeko

- Manikura eta pedikura
- Makillajea
- Aurpegi eta gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mota ezberdinetako depilazioak
- Betileen tindatzea eta lifting-a...



Urtarrilaren 5an, arratsaldean, iritsiko dira Meltxor, Gaspar eta Baltasar Lasarte-Oriara. TXINTXARRI

Urtea amaitzeko, gabon ekintzak

Eguberri ongi etorria emateko ekintza ugari izango dira urte amaierara arte. San Tomas azoka amaituta, abesbatza emanaldiak, gabonetako haur parkeak, tailerrak eta beste hamaika zeregin izango dituzte gazteek erregei ongietorria eman aurretik

Txintxarri

Ate joka dira Gabonak, eta lasarteoriatarrek aitzakia ugari izango dituzte kalera irten eta aurtengo egitarau zabalaz gozatzeko. Musikak garrantzi berezia izaten du Eguberrietan, eta aurten ere emanaldi bat baino gehiagok osatu dute Gabonetako

egitaraua. Alboka abesbatzak kontzertua eman du Brigidatarren komentuan. Gabon kanten emanaldia eskaini zieten larunbatean gerturatu ziren herritarrei.

Udal Musika Eskolako musikariek ere emanaldi polita eskaini dute. Urteroko hitzordua

bihurtu dute kontzertua, eta giro ederrean igaro dute arratsaldea.

Hilabete amaieran ere izango dira kontzertu gehiago. 28an Gospel Christmas Night emanaldia egingo dute Goikalen. Iluntzeko 19:00etan izango da emanaldia. Hurrengo egunean

ere, 29an, Black Harmony Gospel Singers-ek goi mailako kontzertua eskainikodu. Kultur Etxean izango da hitzordua, 20:00etan.

San Tomas Azoka

Baserritar jantziei hautsak kentzeko garaia heldu da, San Tomas azokara apain-apain jantzita ateratzeko. Arratsalde pasa ederra egiteko aukera izango dute herritarrek gaur. Ttakun Kultur Elkarteak antolatuta, taloak, sagardoa eta gaztainak probatzeko aukera izango baitute, Okendo plazan. Beroketa ederra izango da datozen festa egunei ongietorria emateko.

17:00etan zabalduko ditu atek azokak, eta 20:30era arte izango da aukera txistorra taloak eta gaztaina erreteko. Sargardoa ere dastatu ahalko dute.

Eguberri-tako haur parkea

Bihartik aurrera joan ahalko dira herriko gazteak Michelingo

Haur Parkera. Gai askorekin giroa dituzte egunak; piratak, kultura, kirolak eta tolerantzia, besteak beste. Loiri enpresak kudeatuko du parkea, eta jakitera eman dute bi koordinatzaile eta 20 begirale arduratuko direla ekintzetan. Haurrentzako parkeak 31.866 euroko kostua izango du guztira. Lasarte-Oriako Kirol Elkarteak (LOKE) arduratuko da tabernaz, eta sarreren salmentaz, eta lortutako dirua elkartearen gastuentzako izango da. Helduek euro bat ordaindu beharko dute sartzeko.

Bestalde, Ttakun Kultur Elkarteak antolatuta, aurten ere Bilbao Exhibition Center BECe-ko

**BEC-EKO
GABONETAKO HAUR
PARKERA IRTEERA
ANTOLATU DU TTAKUN
KULTUR ELKARTEAK**



2019 zoriontsua opa dizuegu!

EGUZKI TABERNA

- Entsaladak
- Razioak
- Nahaskiak
- Ogitar-tekoak
- Hanburesak
- Plater konbinatuak

Enkarguzko otorduak eta baita eramateko ere.

Eta ostegunetan...
pintxo-potea!

Geltoki kalea 21, Lasarte-Oria • Tel.: 943 128 371



*Nahi edo behar
duzun huraxe
aurkituko duzu
gurean!*

**Fernández
ehunak**

*Eguberri eta
2019 zoriontsua
opa dizuegu!*

Kale Nagusia 2 - Tel. 943 36 16 07 - LASARTE-ORIA

gabonetako parkera joateko aukera izango dute herritar gazteenek. 9 urtetik 12 urte bitarterako adinekoek parte hartu ahal izango dute irteeran. Abenduaren 27an izango da hitzordua; 09:30ean abiatuko dira Lasarte-Oriatik, eta 18:30ean izango dira bueltan. Kultur elkarteko bazkideek 24 euro ordaindu beharko dituzte, eta besteek, berriz, 27 euro. Antolatzaileek jakinarazi dute parte hartzaile bakoitzak bere bazkaria eta merienda eraman behar duela. Interesatuak hiru bide izango dituzte izena emateko: asia@ttakun.eus helbidera idatzita, 943371448 telefono zenbakira deituta, eta Ttakuneko bulegoan bertan.

Hilaren 26an eta 28an ere ekintzak egingo dituzte gazteek.

IONE ZABALAREN LAGUNTZAREKIN KOMIKI TAILERREAN PARTE HARTUKO DUTE HERRIKO GAZTEEK

Komikiak sortuko dituzte Ione Zabalaren laguntzarekin. Anbulategiko hitzaldi aretoan izango da, 11:00etatik 13:00etarako ordutegian, eta doakoa izango da. Izen emateko bidea BECeko irteeraren berbera izango da.

Aterpea ere gabonetan murgilduta *Kultura leku guztietan* programarekin jarraituko du merkatarien elkarteak. Atzo DJ Chill Housek ikuskizuna ekaini zuen Juan XXIII.aren plazan. Abenduaren 28an izango da azken emanaldia; Eider Elorza Donostiako abeslariak gospel eta gabon-kantak kantatuko ditu.

Horrez gain, hilaren 28an, datorren ostiralean, eta 29an, txu-txu trena jarriko dute; Okendo plazatik irtengo da, eta herriko kaleak zeharkatuko ditu.

ERREGEEN KABALGATAK HAINBAT BERRIKUNTZA IZANGO DITU AURTEN

Goizez (11:30-14:00) eta arratsaldez (17:00-20:00) arituko da.

Errege kabalgata

Errege Magoek ere bisitatuko dituzte aurten lasarteoriatarak. Urtarrilaren 5ean herriko hainbat txokotara gerturatuko dira, eta arratsaldean haur eta gazteen eskutitzak jasoko dituzte Brigidatarren komentuan.

MEGABA elkarteak dei egin die 11 urteko lasarteoriatarrei antortxero gisa parte hartzera. Horretarako, asteazkeneko bilera deitu dute, 18:30ean kultur etxeko kafetegian. Kabalgatarako trajeak bilera horretan banatuko dituzte.

Bi berrikuntza izango ditu aurten erregeen kabalgatak. Irailtik ari dira lanean karrozak eta txukuntzeko, eta aurten,

Jalgunek karroza berria izango dute. Horrez gain, Mercero plazako agertokia ere aldatu egingo dute; 20 metro karratuko oihal bat jarriko dute, benetazko jaiotzaren itxura emateko. Suziriak ere izango direla aurreratu dute.

Inork informazio gehiago nahi badu, 635 20 53 93 telefono zenbakira deitu dezake, edo megabalasarteoria@gmail.com helbidera mezu bat idatzi.



Udal Musika Eskolako musikari gazteek Gabonetako emanaldia eskaini dute. TXINTXARRI



Gabonetako haur parkea izango da aurten ere Michelinen. TXINTXARRI



Kultura leku guztietan ekimenaren barruan hainbat kontzertu izan dira herriko hainbat auzotan. TXINTXARRI

Eguberri on!

ELECTRICIDAD ARREGUI

600 857 586

www.electricidadarregui.com

tienda.electricidadarregui.com
(on-line denda)

Gabonetako eskaintzak ditugu!

IRRISTAILU ELEKTRIKOA
Xiaomi
399 €

ONWA TELEBISTA
65HD
790 €

Hari gabeko SAGUA 65HD
12,90€

ENTZUNGAILUA JBL
39,99€

Istanteko ARGAZKI KAMERA
73,90€

73,90€

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21



Txartel eta Lasarte, pintxo ibilbideko izarrak

VI. pintxo ibilbidea arrakastatsua izan da. Mugimendu asko egon da parte hartu duten zortzi tabernen artean. Bar Lasartek eraman du epaimahai profesionalaren saria. Herritarrena, berriz, Txartelek. Denera 1.350 pintxo baino gehiago saldu dituzte

Txintxarri

Aterpearen seigarren pintxo ibilbidea amaituta, botoak zenbatu eta emaitzak ateratzeko ordua iritsi da; bi irabazle egon dira, baina, oro har, aberasgarria izan da parte hartu duten zortzi tabernetzat. Asteburu osoan mugimendu asko izan dute, eta kontsumitzaile ugari galdetu die pintxoari buruz. Denera 1.350 pintxo baino gehiago saldu dituzte. Ramon Roteta sukaldariak egin ditu epaimahaikide lanak, eta zenbaketa oso estu baten ostean sailkapena eman du: Bar Lasartek irabazi du. Bestalde, epaimahai herritarren saria Txartelek irabazi du.

Roteta berak onartu du oso parekatua egon dela txapelketa. Pintxoaren itxura, zaporeen konbinazioa, zaporea eta sormena izan ditu kontutan. Irabazleak 34 puntu eskuratu ditu (40 posibletik). Baina 31 punturekin beste lau daude atzetik. Eta gutxien lortu dituenak 29 ditu. Jesus Zaballos alkatearen eskutik jaso du saria Bar Lasarteko Iñaki Mendok eta Aurori Barcia sukaldariak.

Pintxo dastatutakoen artean erabaki dute bigarren saria, herritarrena. Jakia letik 10era puntuatzeko aukera izan dute,



Ibilbidean parte hartu duten tabernen ordezkariak, alkatearekin. TXINTXARRI

eta batz bestekoa aterata egin dute sailkapena. Txartelek 1.670 pintxo saldu ditu, eta 9,13 puntuazioko batz bestekoa jaso du. Arrate Mercader sukaldariak jaso du oroigarria. Sari honetan ere lehenengoaren eta azkenekoaren arteko tartea txikia izan da. Zazpi puntu pasatxoko batz bestekoa jaso du azkenak.

Bar Lasarte eta Arkupe izan dira pintxo gehien saldu dituztenak, 283 eta 212, hurrenez hurren. Halere, kopuruak altuagoak dira, kontsumitzaile

denek ez dutelako bozketan parte hartu.

Bozketan parte hartu duten guztien artean 200 euro zozketatu ditu Aterpeak, eta irabazlearen izena ere esan dute: Myriam Sanchez.

Zaballosek parte hartzaile guztiak zoriondu ditu, eta adierazi du horrelako ekimenak garrantzitsuak direla Tratu on bat marka indartzeko. Horretarako, irabazleei gonbidatu die menuan txertatzera pintxo irabazleak.



Aterpeko Arantxa Aldai, Lasarteko Mendo eta Barcia. TXINTXARRI



Txarteleko Arrate Mercader, alkatearen eskutik saria jasotzen.

aldika 
produktu bereziak

**ahatekinak
 ehizak eta hegaztiak
 bakailao gezatua
 ondoak
 marinatuak
 olagarroa**

Industrialdea 19-20 • Tel.: 943 37 70 89 • aldika@euskalnet.net

Zorionak eta
 Eguberri on!!



Herritarren hiru proiektu 2019ko aurrekontuetan

Lasarte-Oriatarrek zortzi proiektu aurkeztu dituzte 2019ko aurrekontuetarako. Horietatik hiru onartu dituzte, eta 500.000 euroko gehienezko diru kopurua gainditzen ez dutenez, hirurak egiteko konpromisoa hartu du udalak

Txintxarri

A maitu da 2019ko aurrekontuetarako udalak martxan jarritako parte hartze prozesuaren bigarren fasea. Azaroaren 22tik abenduaren 13ra bitartean, herritarrek aurkeztutako proiektuen balorazio teknikoa egin dute, eta emaitzak jakinarazi dituzte. Gehienez 50 punturekin baloratu dira, eta gutxienez 25 lortzea ezinbestekoa izan da aurrera egiteko. Zortzi proiektu aurkeztu dituzte guztira, eta horietatik hiru gehituko dira aurrekontuen proiektuan.

Eskaera ezberdinak egin dituzte lasarte-orietarrek. Askatasunaren parkea estaltzeko eskaera izan da horietako bat. Estalkia Brigidatarren komentuari eusteko proposatuta, atzera bota dute balorazio teknikoan; izan ere, komentuko pareta ondare historikoa da, eta udalak eurekin sinatuta duen kontratuak, gainera, bistak gordeko direla zehazten da.

Bigarren proiektu batean, herriko haur parke bat estaltzea eskatu diote udalari. 120.000 euroko aurrekontua aurkeztu dute. Proiektuak zehaztasunik ez izan arren, "eskuzabal" jokatu dute balorazio teknikoan, eta aurrera jarraituko du. Lasarte-



Sasoetako dragoiaren parkea. TXINTXARRI

Orian aparkatzeko dauden arazoei ere erreferentzia egin diote parte hartze prozesuan. Aparkaleku gehiago eskatu dituzte, baina zehaztasun faltagatik hori ere kanpo utzi dute.

Aurkeztutako laugarren proiektuak bost proposamen bildu ditu; parke baten estaltzea, argiteriaren hobekuntza, txakurrentzako iturriak, udal langileak kalera irtetea herrian dauden beharrak detektatzeko eta Michelingo jangelan garbiketa. Horietatik parkearen estaltzeak (bigarren proiektuarekin bat eginez) aurrera egin du, eta baita txakurrentzako iturriek ere. Halere, azken hau politikoen balorazioan baztertuta geratu da gero. Bosgarren proiektuan soinu neurgailu bat eskatu dute (30.000

euro), eta hori ere onartuta geratu da.

Elkarte batek, atzerrira egin nahi duen bidaia bat finantzeko eskatu du, baina baztertu egin dute, herriarekiko kontraprestaziorik ez duela izango argudiatuta.

Zumaburuko bizilagun batek, lurrazpiko garajeetan dituzten ur filtrazioak konpontzeko eskatu du, baina jabetza pribatukoak direla argudiatuta, ezezkoa eman diote. Azkenik oholtza mugikor bat eta bi txosna eskatu dituzte zortzigarren proposamenean. 200.000 euroko aurrekontuarekin onartu egin dute. Onartutako proiektu guztiek 350.000 euroko aurrekontua osatzen dutenez, denak egikaritu dituzte.

Oria ibaiari buruzko panel berriak jarri ditu udalak

Oria ibaiaren floraren eta faunaren inguruan egindako zaintza lanari balioa eman nahi izan diote

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak Añarbeko Urak mankomunitatearen laguntzaz, Oria ibaiaren birmoldatze eta fauna eta florari buruzko bi panel berri jarri ditu ibai ondoan, bata Zumaburuko parkean eta bestea Michelin kirol gunean.

Lasarte-Oriako Udal ordezkariak azaldu dutenez, Zumaburuko parke ingurua garrantzitsua da Oria ibaiko faunarentzat. "Ibaia handitua dagoenean, bertan bizi diren animaliak laku honetara hurbiltzen dira lasai egoteko".


Eusko Jaurlaritzak ingurumen arloan egindako jardunbide



Zumaburu parkeko panela. TXINTXARRI

egokiekin katalogoan argitaratu da Lasarte-Oriako lana. Honi balioa emateko hainbat ekintza egingo ditu udalak, panel hauek dira horietako bat.

Bestalde, Añarbek aurten 50. urteurrena du eta mankomunitateko herrietan ekintzak bultzatu nahi izan ditu. Lasarte-Orian panel horiek jartzen lagundu du.



TXINTXARRI

12 eskultura irudien egutegia

Udalak argitaratu du 2019. urteko egutegia. Herriko eskulturen irudiekin osatu dute aurtengoa, eta Isaac Farre argazkilaria izan da horien egilea. Hilabete bakoitzeko eskultura bat agertzen du egutegiak; lasarte-orietarrek egindakoak dira eskultura guztiak, eta ezagunak herritarrentzat. 8.000 ale banatuko dituztela jakinarazi du udalak.

Hiru belaunaldiko esperientzia duten arotzak gara

- Altzairuak neurrira
- Era guztietako arotz-lanak
- Egurrezko lurrak eta sintetikoak
- Etxe barruko konponketak

Gure zerbitzu guztiak ikusgai:

www.iurruzola-aroztegia.com

I. Urruzola
aroztegia

2019 zoriontsua
opa dizuegu!



iurruzolaaroztegia@gmail.com
943 371 200 / 615 784 238

Oria etorbidea 4, behea. 20.160 Lasarte-Oria

Pentsioak: gizarte eredia aukeratu beharra

Duintasuna elkarteko Maria Serranok eta EH Bilduko legebiltzarkide Nerea Kortajarenak Mercero aretoa bete dute, pentsioen inguruko hitzaldian. Batez ere emakumeen egoera salatu dute. "Ez da erabaki ekonomikoa, politikoa baizik"

Adrian Garcia

Pentsiodunen mobilizazio handiak aurten piztu dira, baina aldarrikapenak ez dira berriak; 2012. urtean sortu zuten Gipuzkoan Duintasuna elkarte, bizitza osoa lanean aritu ondoren erretiratuen gutxieneko bizi baldintzak eskatzeko. Euskal Herriko protesta uholdearen parte dira ere Lasarte-Oriako jubilatuak; astelehenero elkartzen dira Okendo plazan protesta egiteko. Azken manifestazio jendetsua joan den larunbatean egin zuten, Donostian. Eta aste honetan bi gonbidatu berezi bildu dituzte gaiari buruz hitz egitera, Antonio Mercero aretoa: Maria Serrano Duintasuneko kidea eta Nerea Kortajarena EH Bilduko legebiltzarkidea. Hain justu, hedabideetan bolo-bolo ibili dira pentsioak azken egunetan, aurrekontuak negoziatzeko ardatzetako bat izan baita.

Gutxieneko 1.080 euroko pentsioa eskatzen hasi zen Duintasuna elkarte orain lau urte. Kopuru hori ikurra bihurtu da egun, nahiz eta berez handiagoa beharko luke. "Bataz besteko soldataren %60 da. Baina guk ez dugu zifra hori atera. Europako Gutun Sozialak esaten du hori", esan du Serranok.

Duintasunak Hego Euskal Herriko beste lurraldeetako elkarrekin elkarlan estua du, eta 2016. urtean 71.000 sinadura bildu zituzten, Eusko Legebiltzarrean herritarren ekimen legegilea aurkezteko. "Ez zuten eztabaidatu ere egin, soilik EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek babestu baitzuten", azaldu du Serranok.

Aurten protestak herri askotan zabaldu badira ere, urteak daramatzate pentsiodun batzuk hilero Donostiako Askatasunaren Etorbidean elkarretaratzten. "Presio soziala da gauzak lortzeko bide bakarra", uste du Serranok. Izan ere, hurrengo bi urteetan lortu dute pentsioak KPIaren arabera eguneratzea. Halere, ohartarazi du bide luzea dutela aurretik.

Emakumeak eta pentsioak

Batez ere emakume pentsionisten egoera da kezagarria, ordainsari baxuenak jasotzen baitituzte. Izan ere, soldatarik gabeko lanak

"PRESIO SOZIALA DA GAUZAK LORTZEKO BIDEA", ESAN DU DUINTASUNAKO KIDE SERRANOK

egin dituzte askok, eta erretiroa hartzeko garaian babesgabe geratu dira. "Askok soilik alarguntasun pentsioa jasotzen dute. Haurrak zaindu dituzte bizitza osoan; pentsa zenbat diru aurreztu duen estatuak haurreskoletan". Datuek egoeraren krudeltasuna erakusten dute: EAEn 16.000 pentsiodunek jo behar dute Diru Sarrerak Bermatzeko Errentara. Horietatik 11.000 dira emakumeak.

Aurrekontuetan tirabirak

Kortajarena legebiltzarkideak pentsioek aurrekontuetan izan duten eragina azaldu du. "Ez da gai ekonomikoa soila. Zer gizarte mota nahi dugu, hori da funtsa. Gizonek pentsio horiek kobratu ahal izateko emakumeak izan dituzte zaintzen".

EH Bilduren ustetan, irtenbide bakarra dago: pentsioen sistema propioa eraikitzea. "Gizarte desberdina da gurea, beste behar batzuk ditugu. Gure eskumena da". Kortajarenak azaldu du malgutasunez jokatu dutela aurrekontuen negoziazioetan, eta abstentzioa emateko prest zeudela. "Baina baldintzak ez dira bete: inoiz baino diru gehiago zegoenean, ezinbestekoa zen murrizketa politikekin bukatzea eta horiek iraultzea".



Kortajarena eta Serrano, Merceron hitzaldia ematen. TXINTXARRI



Lasarte-Oriako pentsiodunak, larunbateko Donostiako manifestazioan. JESUS OCEJA



2019 zoriontsua opa dizuegu.
Eguberri on!

Juan XXIII plaza, Lasarte-Oria

Carrefour
express

Euskal presoen auzia askatzeko beste urrats bat

Orain Presoak dinamika urtarrilaren 12an Bilbora eta Baionara hurbiltzeko deia egin du. Bien bitartean, euskal presoen egoera gogoan izateko, Gabonetan hainbat ekintza egingo dituzte herrian; esaterako, haien testuekin osatutako errezitaldia

Txintxarri

Urtarrilaren 12an, euskal presoen auzian "beste urrats bat" egiteko manifestazioa egingo dute Bilbon eta Baionan, Orain Presoak dinamika deituta. Lasarte-Oriako Sare Herritarrak bat egin du deialdiarekin, eta Bilboko mobilizazioan parte hartzeko gonbita egin die herritarrei.

Dinamika uste du espete politikara aldatzeko kontsentsua badagoela, eta estatuengan eragin behar dela, politika hori zehazten duten oinarriak moldatzeko.

Horretarako, norbanako ororen "aktibazioa eta inplikazioa" behar da. Hori dela eta, bi manifestazio antolatu dituzte; bata Bilbon, eta bestea Baionan. "Bi aldeak batuko dituen mobilizazio bakar bat izango da. Aldarriaren atzean jendarte osoa dagoela erakutsiko diegu, bai Frantzia, bai Espainiako estatuei".

Gipuzkoako herrietako norbanakoak bilduko dira Bilbon; ehun autobus inguru prestatu dituzte. Lasarte-Oriatik ere aterako dira; manifestaziora joan nahi duten herritarrek izango dituzte eskura. Autobusak 15:00etan aterako dira Tajamar biribilguneetik. Tiketak salgai



Denbora izan zen gai nagusia azken errezitaldian. TXINTXARRI

daude Artizar eta Ilargi tabernetan.

Gabonetako ekintzak

Orain Presoak ekimenaren inguruan hainbat ekintza antolatu dituzte Gabon jai hauean.

Gaur, abenduaren 21ean, 17:30etatik 20:30etara informazio mahaia jarriko dute Okendo plazan, San Tomas azokan. Bertan, txokolate beroa eta bizkotxoa eskainiko dituzte.

Abenduaren 28a hilabeteko azken ostirala izanik, elkarretaratze ibiltaria egingo dute. 20:00etan San Pedro elizaren aitean hasiko da ekitaldia.

Urteari amaiera emateko, abenduaren 31n, 19:00etan, *Bada garaia; presoak kalera!* lelopean manifestazioa egingo dute, Okendo plazatik hasita.

Errezitaldia

Hori guztiaz gain, Harresi Guztien Gainetik taldeak *Musika eta ipuinak, bihotzetik bihotzera* errezitaldia antolatu du, urtarrilaren 4an, 20:00etan, Manuel Lekuona kultur etxean.

Bederatzigarren edizio horretan musikaz gain, preso dauden herrikideek helarazitako sormen lanez ere gozatu ahalko da. Horrek guztiak, "presoak etxeratze beharra" aldarrikatzeko balioko du.



Atzegi elkarteak kideak, Hernanin egin zuten aurkezpenean. KRONIKA

'Gure txanda da': Atzegiren boluntariotza, inklusio modura

Atzegi elkarteak ikusgai egin nahi ditu adimen urritasuna duten pertsonen boluntario izateko duten gaitasuna

Txintxarri

Atzegi elkarteak *Boluntario bila? Gure txanda da* kanpaina jarri du martxan. Horren bitartez, adimen urritasuna duten pertsonen boluntario izateko duten gaitasuna erakutsi nahi ditu, eta boluntario izateko aukera berriak aurkitu.

"Nabari dugu gero eta pertsona gehiago hurbiltzen zaizkigula boluntario izateko interesarekin. Adimen urritasuna duten pertsonak dira; askok boluntariotzan esperientzia puntualen bat izan dute, eta errepikatu nahi dute, beste zeregin egonkorrago bat bilatu," azpimarratu zuten Atzegiko kideek Buruntzaldeko aurkezpenean.

Atzegi urte batzuk daramatza hainbat erakunderekin lanean: Elikagaien bankuarekin, Lilatoiarekin, Ehunmilak-ekin eta San Silvestre askorekin.

"Orain arte izan ditugun esperientziak oso onak izan dira bi aldeentzat". Horregatik, horiek eskertu eta sendotu nahi ditu elkarteak, aurkezpenean aipatu zuten bezala.

Aukera berriak

Bide batez, boluntario izateko aukera berriak eskaini nahi dituzte, pertsona gehiagori jarduerak eskaintzeko. "Atzean prest gaude erakundeen beharrak aztertzeko, jarraipena egiteko eta sor daitezkeen boluntario lanetan laguntzeko".


Atzegi boluntariotza inklusio modu bezala ikusten du: "Urritasuna duten pertsonen jarduerak askotan lagundu dezakete, eta gizarteari ekarpen baliotsua egin diezaiokete. Baliagarri sentitzeko eta besteei laguntzeko grinak ilusioa eta ahalegin handia jartzera eramaten ditu".

Gabon hauean oparitu

%30 DESKONTUA

eguzkitako
betaurrekoetan

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIOPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan

www.multiopticasgipuzkoa.com



Basaundi bailara biziberritzeko urratsak

Basaundi bailarako eraikinak berriitu eta irisgarritasuna hobetzeko diru laguntza emango du Eusko Jaurlaritzak. Laguntzei buruzko informazioa emateko bulego bat jarriko da auzoan. Berrurbanizazio lanak datorren urtarrilean hasiko dira

Txintxarri

Basaundi Bailara auzoko berrurbanizazioko lanak urtarrilean hasiko dira. Auzoko birmoldatzearekin batera, Lasarte-Oriako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren berritze lanak ere sustatuko dituzte. Horretarako, 2.400.000 euroko hitzarmena sinatuko dute.

Basaundi bailarako jarduketara Eusko Jaurlaritzaren 2017-2022 Lurralde Inbertsio Plan Integratuan dago. Eraikinen kontserbazio eta egoera sozio-ekonomiko ezegonkorra duten auzoetan jarduteko programa pilotuko proiektuetako bat da, Txabarri-El Sol (Sestao), Koroatzea (Gasteiz), Txomin Enea (Donostia), Txonta (Eibar), Otxarkoaga (Bilbo) eta Aramotz (Durango) auzoekin batera.

Esku hartze hau 16 komunitatetan banatzen diren 151 etxebizitzatan eta 29 lokaletan izango du eragina. Jesus Zaballos alkateak jakitera eman duenez, bilerak egin dituzte auzokideekin eta ados agertu dira etxeak birmoldatzeko lanekin.

Alkateak zehaztu duenez, irisgarritasuna eta eraginkortasun energetikoa hobetzeko lanak egin beharko dituzte laguntza horietaz



Udal ordezkariak Basaundi bailarako plazan. TXINTXARRI

baliatzen diren komunitateak; eta eraginkortasun energetikoaren kasuan, lanen ostean, gutxienez bi puntu gehiago lortu beharko ditu.

Hori zehazteko, orain eraikinen ikuskaritza teknikoa, EIT, egingo dute, eta lanen ondoren beste azterketa bat egin beharko zaie.

Lasarte-Oriako Udalak Eusko Jaurlaritzako dirua lau kuotetan jasoko du: 2018an, 235.000 euro; 2019an, 940.000 euro; 2020an, 765.000 euro; eta 2021an, 450.000 euro.

Ostean, laguntza onartzen duten komunitateen artean banatuko du. Gehienez lanen %50 berreskuratuko dute komunitateek. Hala ere, Eusko

Jaurlaritzak edo udalak ematen dituen beste diru laguntzekin bateragarri da honakoa.

Bizilagun guztiei aukera eman nahi die udalak. "Galdu ezin den aukera bat da. Bizilagunen batek lanen bere ehuneko ezingo balu ordaindu, berme funts bat eskatu ahalko dio udalari".

Horien guztien berri emateko bulego bat jarriko da auzoan otsaila aldera, auzo elkarteak lokalean. Bertan arkitekto, administrari eta Gizarte Zerbitzuetako langile bana izango dira herritarren beharrak aztertzeke. Kontratazio hauek Lanbideren bitartez egingo dira.

Hamaiketakoa eta jaia 2018. urteari agur esateko

Ostadar Mendi sailak eta Ttakun Kultur Elkartek jai txiki bat antolatu dute Buruntzan hilaren 31n

Txintxarri

Inguruko herrietan ohitura dago urte zaharra agurtu eta berriari ongietorria egiteko. Lasarte-Orian 2012. urtetik hona, abenduaren 31n, herritar ugari hurbiltzen da Buruntza mendira hamaiketakoa egitera.

Ostadar Mendi sailak eta Ttakun Kultur Elkartek elkarlanean jaitxoa antolatzen dute San Rokeko baselizaren ondoan. Bertan ez dira jatekoa eta musika falta. Helduek txorizo errea, gazta, salda, ardoa eta sagardoa dastatzen dituzte; etxeko txikiek, berriz, txokolate tabletak. Tzikitixa doinuek goiza giroten dute.

Jaitxoa 10:00etan hasiko da, eta jatekoa amaitu arte egongo



San Rokeko aterpea iaz. TXINTXARRI

dira bertan. Eguraldi txarra eginez gero, baselizaren ondoko aterpean izango dira.



T.VALLÉS

Gabonak abestuz zoriondu

Brigidatarren komentua lepo bete da Alboka Abesbatzaren Gabonetako kontzertua entzuteko. Eliz abestiak eta gabon doinuak nagusi izan dira emanaldian. Abesbatzak eskerrak eman dizkie bazkideei haien laguntzarengatik eta bazkideen artean zozketatutako bi sari banatu dituzte. Kontzertuari amaiera emateko ikusleak gonbidatu dituzte, *Hator, hator* abestera.

%25ko
deskontua
eguzkitako
betaurrekoetan



IRIGOYEN

OPTIKA

Gabon hauetan, oparitu osasuna!

2019 zoriontsua
opa dizuegu!



Largoenea 1, Lasarte-Oria - Tel. 943 37 10 47



Josi eta ikasi, euskal jantzi dotoreak sortzeko

Bi hilabete hari eta josteko makina artean pasa ostean, amaitu dute aurtengo Jantzi Tradizionalen ikastaroa. Azkeneko ukituak eginda, prest dituzte jantziak urteari amaiera emateko; San Tomas azokan eta Gabon gauean apain aterako dira plazara

Maddi Zaldua

Trebezia ederra erakutsiko dute aurten ere Ttakun Kultur Elkarteak antolatutako Jantzi Tradizionalen ikastaroko jostekuek. Urteroko hitzordua izan da horietako batzuentzat, baina izan da oraingoan ere hutsetik hari tartean murgildu denik ere. Denek ala denek erakutsi dute, ordea, talentu eta gogo handia; ikusi besterik ez da nolako jantzi ederrak egin dituzten. Batzuek zaharrari deskantsu eman eta berria egin dute hemendik aurrera janzteko; beste batzuk, berriz, iloba, biloba, lehengusu edo bikotekidearentzako sortu dituzte jantziak. Koloredunak, mimoz eginak, azken detaileak ere ez die ihesik egin. Irakaslea ere jostun fina, denek elkarrekin lan talde polita osatu dute.

Jantzia egiteko oihalak aukeratzea izan da lehenengo lana, eta behin hori eginda, sortu nahi zuten jantzia egiten hasi dira. Horrela azaldu dio TXINTXARRI-ri Pilar Arteaga ikasleak: "Gogoa neukan jantzi berri bat egiteko, eta Donostiara joan nintzen gustuko oihalak erostera".

Baten batek ere aurreko urteetan erabili gabeko telak aprobetxatu ditu aurtengoak egiteko, eta jantzi txukunak

osatu dituzte. Batzuek emakumezko zein gizonezkoarentzat euskal jantzi osoa egin dute, baina izan dira pieza sueltoak egin dituztenak ere.

Modelo berriak

Ausartu dira aurtengo jantzieta modelo berriren bat egitera. Halaxe egin du Arantxa Urkizuk. Urte asko daramatza ikastaroan, eta aurten Ione Artola irakaslearekin hitz eginda, itxitura-irekiera berri bat egin dio gona berriari.

Oso pozik agertu dira denak lortutako emaitzekin, nahiz eta aitortu duten, hobetu beharreko gauzak ere geratu zaizkiela.

Jantzi tradizionalen ikastaroa amaitu da, baina josten jarraitzeko aukera izango dute lasarteoriatarrek datorren urtean ere.

Ttakun Kultur Elkarteak, urteroko *Titare* ikastaro iraunkorra martxan jarriko du urtarrilaren 10etik aurrera. Ostegunetan izango dira saioak, 15:30etik 17:30erako ordutegian, eta bertan parte hartu nahi duenak, izena eman beharko du Ttakun Kultur Elkarteak, 943 37 14 48 edota 695 78 53 89 telefono zenbakietan.

Ikastaroan egindako lan guztiak ikusteko, ikus [txintxarri.eus](#) atariko galeria.



Gona, txalekoak, mantalaurrekoak eta zapiekin osatutako euskal jantzia. TXINTXARRI



Gaztekoentzako jantzi ederrak egin ditu ikasle batek baino gehiagok. TXINTXARRI



Gona modelo berriak egitera animatu dira aurtengo ikastaroan. TXINTXARRI



Gizonezkoarentzako alkandora elegantea ere egin dute aurten. TXINTXARRI



Ione Artola irakaslea, aurtengo ikastaroko ikasleekin. TXINTXARRI



Poxpolin estiloko gona ederra ere izan da aurtengo lanen artean. TXINTXARRI



Talde ugariak parte hartzen dute Ostadar SKT-k antolatutako 3x3 txapelketan. TXINTXARRI



Eguzkik antolatutako areto futbol txapelketan parte hartzeko aukera izango dute gazteek. TXINTXARRI

Futbola eta saskibaloia, Gabonetako menua

Gabonetako oporraldian kirolaz gozatzeko aukera bat baino gehiago izango dituzte Lasarte-Orian. Eguzkik areto futbol txapelketa antolatu du, eta Ostadar SKTk, berriz, 3x3 saskibaloia txapelketan parte hartzeko aukera eskainiko du hilaren 29an

Txintxarri

Gabonetan liga askok atsedena ditzuten hartzen dute, baina sasoi puntua ez galtzeko aukera badago Lasarte-Orian. Izan ere, beste hainbat kirol ekitaldi antolatzen dituzte herriko kirol elkarteek. Nabarmenenak, Eguzkik eta Ostadarrek antolatzen dutena. Abenduaren 26an, asteazkenean, hasiko dute gaztetxoek areto futbol topaketa. Bestalde, 3x3 saskibaloia torneo jokatu dute hilaren 29an, larunbatez.

Ez daramatzate urte gehiegi kirol ekitaldi horiek antolatzen, baina dagoeneko Gabonetako menuko ohiko ekintzak bihurtu dira. Izan ere, Maialen Chourraut kiroldegiko eta Michelingo frontoiko harmailak betetzen dituzte urtero.

Areto futboleko Eguzki taldeak bigarren urtez antolatuko du gaztetxoaren topaketa. Aurretik Ostadar elkarteak areto futbol sailean antolatzen zituzten. Hiru kategoriatako haurrek jokatu dute: infantilek, alebinek eta Kirol Eskolakoek. Gehienez zortzi talde arituko dira maila bakoitzean, 24 guztira. Gaur ostiralean itxiko dira izen emateak, baina talde dezentek baiezatu dute parte hartzea, ia denak Lasarte-Oriakoak. Antolatzaileen azken datuen arabera, hemeretzi taldek eman dute izena.

Ligaxka asteazkenean hasiko dute. Bi talde osatu dituzte kategoria bakoitzean. Partida guztiak Michelingo kirolgunean jokatu dituzte. Azken faseko partidak, frontoian.

Talde bakoitzak 50 euro ordaindu ditu parte hartzeko, baina bueltan opari mordoia jasoko ditu. Elastikoa izango dute parte hartzaile guztiek.

Horrez gain, denentzako dominak eta beste hainbat ezusteko izango dituzte.

Antolatzaileek aurten ere giro polita sortzea espero dute. Iazko partidetan 300 ikus-entzule baino gehiago bildu ziren Michelingo frontoian. Azken fasea urtarilaren 4ean edo 5ean jokatu dute; oraindik baiezatzeko du Eguzkik.

3x3 txapelketa

Gabonetako beste tradizio sailhestezina bihurtzeko bidean da Ostadarrek antolatzen duen 3x3 saskibaloia txapelketa. Aurten seigarren aldia izango du. Kanpoko taldeak ere etorri ohi dira torneo jokatzera, Gabonetako erreferentzia bihurtu baita: "Udan 3x3ko txapelketen eskaintza handiagoa izaten da, eta neguan ere aukera hori izateko asmoarekin hasi ginen gu", azaldu dute antolatzaileek.

Kategoria askotako neska-mutilek parte hartzen dute 3x3koan. Euskarri txikiko partidak izanda, une berean jokatu daitezke partida asko, bost partida askotan. Partidak motzak dira, zortzi minutukoak, baina egun osoan norgehiagoka asko jokatu dituzte taldeek. Bost saski jarriko dituzte aurten ere, eta kirol egokituak ere bere lekua izango du txapelketan. Hortaz, ordubetean, 30 partida jokatu dituzte. Abenduaren 29an izango da txapelketa, eta "gogotsu" daude antolatzaileak eguna iristeko.

GEROZ ETA PARTE HARTZE HANDIAGOA DU OSTADARREN 3X3 SASKIBALOI TXAPELKETA



Eguberri on!



tsst

Tel. 943 361 740 • www.tsst.info

Gure herriko autobusak

Azkarra, segurua eta eroso

ABENDUAK 24 ETA ABENDUAK 31, AZKEN ZERBITZUAK

T2 Ospitaleak > Usurbil. 19:50	T1 DSS > Lasarte-Oria. 20:30
T2 Ospitaleak > Lasarte-Oria. 20:50	T2 Usurbil > Ospitaleak. 20:17
T5 Tolosa > DSS. 19:25	T3 DSS > Andoain. 20:15
T5 Andoain > DSS. 19:45	T5 DSS > Tolosa. 19:15
T5 Lasarte-Oria > DSS. 20:00	T6 Usurbil > Hernani. 20:15
T5 Tolosa > Lasarte-Oria. 20:25	
T5 Andoain > Lasarte-Oria. 20:45	
T6 Hernani > Usurbil. 19:45	
T6 Hernani > Lasarte-Oria. 20:45	

GABON GAU ETA URTEZAHAR GAUERAKO ZERBITZU BEREZIAK

T1 Lasarte-Oria > DSS. 00:30
T3 Andoain > Lasarte-Oria > DSS. 01:25 - 06:25 (orduro)
T3 DSS > Lasarte-Oria > Andoain. 01:00 - 07:00 (orduro)

ABENDUAK 25 ETA URTARRILAK 1 EGUNETAKO ZERBITZUAK

Tolosa	Villabona	Andoain	Lasarte-Oria	DSS	Lasarte-Oria	Andoain	Villabona	Tolosa
7:30 → DSS	8:00	8:15	8:30	8:40	→ Tolosa			
8:30 → DSS	9:00	9:15	9:30	9:40	→ Tolosa			
9:20 → DSS	10:00	10:15	10:30	10:40	→ Tolosa			
10:20 → DSS	11:00	11:15	11:30	11:40	→ Tolosa			
11:20 → DSS	12:00	12:15	12:30	12:40	→ Tolosa			
12:20 → DSS	13:00	13:15	13:30	13:40	→ Tolosa			
13:20 → DSS	14:00	14:15	14:30	14:40	→ Tolosa			
14:20 → DSS	15:00	15:15	15:30	15:40	→ Tolosa			
15:20 → DSS	16:00	16:15	16:30	16:40	→ Tolosa			
16:20 → DSS	17:00	17:15	17:30	17:40	→ Tolosa			
17:20 → DSS	18:00	18:15	18:30	18:40	→ Tolosa			
18:20 → DSS	19:00	19:15	19:30	19:40	→ Tolosa			
19:20 → DSS	20:00	20:15	20:30	20:40	→ Tolosa			
20:20 → DSS	21:00	21:15	21:30	21:40	→ Tolosa			
21:20 → DSS	22:00	22:15	22:30	22:40	→ Tolosa			
22:20 → DSS	22:45	→ Lasarte-Oria						



Kalitateko Zerbitzuak - Ingarren Zerbitzuak
Seguruen eta Osoen Zerbitzuak



LINEA VERITAS
BUREAU VERITAS
Certification



Bikam



Enduena Biziarekin
Enduena Biziarekin

"Herriak herriarentzako eginiko lasterketa da"

DAVID SANCHEZ ETA DAVID MATEOS SAN SILVESTREKO ANTOLATZAILEAK

Laugarren aldiz antolatuko dute urte amaierako lasterketa herrian. Kirol proba bat baino gehiago dela aldarrikatu dute antolatzailleek. "Edonork parte hartu dezakeen festa da"

Adrian Garcia

Lasterketa gaztea izan arren, bizia da Lasarte-Oriako San Silvestre. Laugarren aldia izango du aurten, baina dagoeneko askorentzako zita sailhestezina bihurtu da. Ez da ohiko lasterketa bat; badaude irabaztera ateratzen direnak, baina antolatzailleek beraiek beste era bateko lehia sustatzen dute. Mozorro onenei saria ematen diete, eta egun osoko egitaraua prestatzen dute. "Kirol festa bat da, ez lehiaketa bat". Helburua argi dute: herritarrek eta ahal bezainbeste eragile inplikatzeko, giroa sortzeko. Bost eurotan hartu daiteke dortsala, alde zurretik. Merceron jaso daiteke, lasterketa aurreko asteburuan.

David Sanchez eta David Mateos antolatzailleekin bildu da TXINTXARRI. Lasterketa abiatu zutenean "apustu arriskutsua" egin zuten, ez zekitelako jendeak nola erantzun zuten. Baina aurreikuspen guztiak gainditu zituzten. 649 pertsonak parte hartu zuten lehenengo aldi horretan. "Dorsal gehiago egin behar izan genituen". Gainera, patinatzaileek eta ipar martxalariak lekua ere badute.

Hutsune bat bete nahian hasi ziren lanean. "Jendea beste herrietara joaten zen San



David Sanchez eta David Mateos. TXINTXARRI

Silvestre korri egitera. Eta egun horren funtsa galdu egiten zen herrian", adierazi du Mateosek.

Indar asko jartzen dute korrikalariak mozarrotu daitezela. Horregatik, haiek ere ileordea jantzita atera dira argazkian. "Lehen urtetik jende askok erantzun zuten, eta mozarrotu gabe ateratzen direnak nabarmen geratzen dira", azaldu du Sanchezek.

Lotsa galtzen joateko antolatzen dute lehenago lasterkariarentzako beroketa. Lasterketa baino ordubete

lehenago, 15:00etan, elkartuko dira Okendon, lehen ariketak egiteko. "Inauteriak ez izatean, agian baten batek erreparoa izango ditu bestela etxetik mozarrotuta ateratzeko".

Hasi beroketatik eta helmugara iritsi arte, antolatzailleek asko zaintzen dute giroa. "Musika bide osoan jartzen dugu, bozgorailuak bizikletetan jarrita. Trikitilariak ere egoten dira BM supermerkatuaren inguruan. Okendon DJ bat izango da. Dena giroa sortze aldera".

Ibilbideak ere laguntzen du lasterketa atsegingarria egitera. Sei kilometro dira, ipar martxalariarentzako zerbait gutxiago. "Asmoa da korri egiteko ohitura ez duenak ere bukatu ahal izatea".

Halere, baten batzuk izango dituzte zailtasun gehiago, aukeratutako mozarroaren arabera. "Beroa egiten badu, itota iritsiko dira. Eta euria egiten badu, kilo batzuk gehiagorekin".

Ikusita mozarroak izandako erantzuna, sariak ere aldatu dituzte. "Hoberen mozarrotutako kuadrilla, bikotea eta norbanakoentzako sariak daude. Finean, sariak bideratuta daude mozarroarentzako, eta jendeak ongi hartzen du".

Iaz erakutsi zuten askok sormen handia dutela. Carles Puigdemont Kataluniako presidente kargugabetuak irabazi zuen mozarro onenaren saria. "Beroketan arreta deitu zigun. Gainera, aste batzuk lehenago idatzi zigun, ea posible zitzaion 155 dortsala egokitzea. Ondo pentsatua zuen dena".

Jalgune elkarteak

Egun osoko festa egin nahi dute urteko azken eguna, eta horretarako egiten dute pintxo-pote solidarioa. Aurten Jalgune elkartearentzat izango da bildutako dirua. "Lasterketa honek gauza on bat du: jende askok parte hartzen du, baina ikusten ere beste jende andana biltzen da", azaldu du Mateosek. Horrela, "sinbiosi moduko bat" sortzen da lasterketa eta ikusleen artean. "Efektu hori goizera ere pasa nahi dugu, festa luzatzeko. Gainera, bultzatzen dugu herriak lasterketa berea egin dezan, ez

dezala ikusi lasterketa lehiakor bat, denori onura egiten digun ekitaldi bat baizik".

Bestalde, herriko dendarien laguntza eskatzen dute, produktuak zozketatzeko. "Pintxo-pote solidarioan jartzen dugun guztia dendek, harategiek... jartzen dute. Gero haiek beren izena jartzen dute, eta ekarpena egin dutela jakiten da. Haien negoziok sustatzeko baliagarria da gero. Herriarekin herriarentzako lasterketa da". 86 negoziok lagundu dute aurten San Silvestrea.

1 dortsala

Urtero pertsona edo talde bati 1 dortsala ematen diote, herriaren alde eginiko lana aitortzeko. Aurten TXINTXARRI-REN 25. urteurrenaren oroitu dira, eta herri aldizkariak jasoko du omenaldia.

Egun lasterketa egonkortua dagoen arren, hasiera zailak izan zirela onartu dute bi antolatzailleek. "Udalak eta Texas taldeak asko lagundu dute, baina hutsetik egin behar izan dugu dena, eta horrek kezka handia sortzen du, ez dakizulako nola aterako den". Horrexegatik, lehen urtean haien buruari eman zioten 1 dortsala.

Boluntarioen lana ere, beste lasterketa guztietan bezala, ezinbestekoa dute. "Askok nahiagoko lukete korri egin, edo garagardo bat hartu. Baina haien lanari esker aurrera ateratzen da lasterketa".

"HASIERATIK JENDEAK ONGI ERANTZUN DU; IA DENAK MOZORROTU EGITEN DIRA"

GURE NAGUSIEK IRAKATSI ZIGUTEN MODUAN, JARRAITZEN DUGU PEDALEI ERAGITEN.

Duela 50 urte baino gehiago, aitona Martinek gure empresa txikia hasi zuen ingurunean kafea bizikletaz banatzen. Amona Maritxuk hartu zuen agintea bera desagertzean. Gaur beraien legatua hartu eta aurrera jotzen dugu. Famili bera gara, artisau kafe bera, denda bera, zerbitzu bera. Irudia besterik ez da aldatzen.

EGUBERRI ON



Pili Bodegas, lasterketa betean. PILI BODEGAS



"Duela 15 urte eroek bakarrik egiten genituen triatloiak"

PILI BODEGAS TRIATLOILARIA

Lasarte-Oriako kirolariaren urteetako lana eta emaitzak saritu ditu udalak, haren ibilbideari egindako omenaldian. Ohartarazi du oraindik urte asko geratzen zaizkiola

Adrian Garcia

Pili Bodegasen (Lasarte-Oria, 1973) bizitzaren zati garrantzitsua da kirola. Tonifikazio eta estalpeko bizikletaren monitorea da lanbidez, baina ogibidea bakarrik ez, haren pasioa ere bada kirola. Triatloietan hasi zen oraindik oso ezagunak ez zirenean, eta egun erreferentzia bat da Euskal Herriko zirkuituan. Geldirik egon ezin den horietakoa da; horregatik kostatzen ari zaio txorkatilako

bihurduratik errekuiperatzea. Herrenka igo behar izan ditu Ttakun Kultur Elkarteko eskailera TXINTXARRI-k elkarrizketatzeko.

Pozgarria izan behar du zure herrian aitortza hori jasotzea, ezta?

Oso pozik nago. Entrenatzeko egiten ditugun sakrifizioak, goiz jaiki garen egunak, emaitzak atera ahal izateko egin ditugun ahalegin guztiak... Hori guztia aitortzea ekitaldi publiko batean oso polita, benetan eskertzekoa.

Ondo ibili zara denboraldi honetan ere. Azken urteetan Euskal Zirkuituko sailkapenaren goiko zatian egon zara.

Egia esan, aurten espero baino hobeto ibili naiz. Laguntza handia dut, Yepa! triatloi taldeko kideei esker. Bizikletan ateratzen naiz haiekin, ahal dudanean. Adriana Campoyrekin bikain moldatzen naiz. Nire antzera dabil igeri eta bizikletan, eta elkarri laguntzen diogu. Gero korrika bakoitzak ahal duena egiten du.

Olinpikoa eta esprint distantziakoak egiten dituzu. Gustatuko litzaizuke luzeagoak egitea?

Bai, baina nire belaunengatik ez dut egiten. Berez egin ahalko nituzke, baina nire kirol ibilbidea ahal bezainbeste luzatu nahiko nuke. Zarauzko Triatloia gustatuko litzaidake egitea. Eta lortuko nuke bukatzea. Baina dortsala bat jartzen badut, ezin dut parte hartze hutsagatik atera. Lehiatu egin behar dut. Eta prestaketak nire kirol ibilbidea laburtuko luke.

Euskal Herritik kanpo ere lehiatzen al duzu?

Proba tentagarriren bat edo beste egiten dut nire senarrarekin [Andoni Ilarramendirekin] batera; Andorran egon gara, Alpe d' Huezeko triatloian...

Zure bikotekideak kirol berbera egitea lagungarria izango zaizu, ezta?

Ikaragarri, bai. Elkar ulertzen gara. Hark ez balu triatloia egingo nire kirol ibilbidea ez litzateke horren luzea izango. Laguntza behar duzu; askotan gogorik ez dugu entrenatzeko, eta elkar animatzen gara.

Talde desberdinetan aritzen zarete.

Bai, baina asko entrenatzen dugu elkarrekin. Ez du nire taldera etorri nai [kar, kar, kar].

Nola hasi zinen triatloiak egiten?

Igerilaria izan naiz gaztetatik. 18 urterekin alde batera utzi nuen, eta mendian hasi nintzen, baina ez diot utzi inoiz kirola egiteari. Inaki nire anaia duatleta da, eta hark korri egitera bultzatu ninduen.

Arranean ere ibiltzen zinen.

Garai hartan denboraldi-aurrea prestatzeko korrika gehiago hasi nintzen egiten. Euskadiko txapelketak, Espainiako azpitxapelkunak... la dena irabazi genuen arranean; orain dela hogeit hamar urte nesken arrauak ez zuen gaur egungoarekin zerikusirik, maila gutxiago zuen. Azkenean, arraua utzi eta korrika hasi nintzen. Lasterketa batzuk irabazi nituen ere. Baina min hartu eta bizikleta gehiago hasi nintzen sartzen, eta bete-betean sartu nintzen horrela triatloietan.

"FUTBOLAZ HARAGO BADAGO BESTE MUNDU BAT, ETA POZGARRIA DA JENDEAK IKUSTEA"

Zenbat urte daramatzazu kirol horretan?

Orain 15 urte egin nituen lehen probak.

Asko aldatu da kirola denbora horretan guztian. Nolakoak ziren orduan triatloiak?

Orduan eroek bakarrik egiten genituen triatloiak. Ez zen horrenbeste entzuten. Baina dortsala janztean, ardurarekin egiten genuen. Hori galdu egin da. Mundu guztiak uste du triatloiak egin ditzakeela, eta ez da horrela. Lehen ez zenuen horrenbeste parte hartzaile kaskarrik ikusten. Jende gutxiago zegoen, baina maila askoz ere altuagoa zen.

Parte hartu behar ez lukeen jendea ikusten al duzu probetan?

Bai, nahiko prestatuta ez dagoen jende gehiegi ateratzen da. Dortsala jartzeari errespetua galdu zaio. Gure osasunarekin ari gara jokatzeko, arriskutsua da hori.

Gero eta lasterketa luzeagoak egiteko joera ere ari da nagusitzen.

Bai. Lehen Ironman bat egiten zuena munduko zororik handiena zen. Orain triatloi esprint bat prestatzen ari naizela esaten dudanean lotsa eta dena ematen dit. Nire ustez jendea burua galtzen ari da.

Gauza asko aldatu dira. Orain jendeak baliabide gehiago ere baditu kirola egiteko.

Jende gehiago dago, eta emakume gehiago. Hori oso pozgarria da. Orain entrenatzaile asko dituzu, izkina guztietan aurki dezakezu bat; kiroldegian, Interneten... Lehen ez zegoen ezer, eta askoz ere zailagoa zen.

Zenbat egun entrenatzen dituzu?

Ariketa fisikoa egunero egiten dut, nire lana da eta. Baina horrek ez dit uzten kalitatezko entrenamenduak egiten, horregatik zaila da podiumera igozea. Bi ordu estalpeko bizikletan ibili eta gero, ezin dut kalitatezko entrenamendu bat egin. Etxea, haurra... eta beste gauzak ere egin behar ditut. Igeriketa Lasarte-Orian entrenatzen duzu?

Bai, Buruntzaldea IKTKo masterrekin egiten dut, astean hirutan. Asko laguntzen dit horrek.

Herrian ere jende askok egiten ditu triatloiak. Trinko taldea sortu zuten orain ez asko.

Oso albiste onak dira horiek. Futbolaz harago badago beste mundu bat, eta pozgarria da.



Pasa den larunbateko sari banaketa ekitaldia bukatzeko, hiru kirolariekin batera talde argazkia atera zuten udal korporazioko hainbat zinegotzik. TXINTXARRI

Kirol urte bikain bat ixteko modu ezin hobea

Iraia Iparragirre futbolaria, Raul Gomez lasterkaria eta Pili Bodegas triatleta saritu ditu Lasarte-Oriako Udalak, udaletzeko pleno aretoan. Herritarren proposamenak aztertu, eta Kirol Batzordeak deliberatu du hiru horiek direla 2018ko kirolari nabarmenenak

Iñigo Gonzalez Sarobe

Iraia Iparragirre, Raul Gomez eta Pili Bodegas. Hiru horiek izan dira 2018ko hiru kirolari nabarmenenak Lasarte-Oriako Udalarentzat. Aitortza xume eta beroa jaso zuten hiruek pasa den asteko larunbatean, pleno aretoan. "Kirola egiten hasi zinetenean ziur aski bazenekiten nortzuk zineten, baina oraindik

ez dakizue non dagoen zuen muga, ibilbide luzea duzuelako aurretik oraindik. Eredu zarete lasarteoriatar guztiontzat", nabarmendu zuen Jesus Zaballos alkateak ekitaldian.

Herritarrek hamar proposamen egin zituzten 2018ko sarituak aukeratzeko hautaketa prozesua zabalik egon zen bitartean. Hautagaitzak ikusi eta aztertu

ostean, Kirol Batzordeak deliberatu zuen Iparragirre, Gomez eta Bodegasek egin zituztela meritu gehien.

Ametsak betetzen

"Ilusio handia" egin dio Iraia Iparragirreri 2018ko emakumezko kirolari onenaren saria jasoteak. "Emakumeok zailtasun asko eduki ditugu historian zehar kirola

egiteko eta mundu horretan aitortza publikoak jasotzeko", aldarrikatu zuen larunbatean. Realean jokatzeko du gaur egun, Iberdrola Ligan, elitean. Laugarren denboraldia du aurtengoa, eta oso ohikoa da bere izen-abizenak hasierako hamaikakoan ikustea.

2007tik 2011ra Ostadarren jokatu zuen, eta Añorgara egin zuen jauzi urte horretan. Bigarren Mailan aritu zen hainbat urtez, 2015ean Realak fitxatu zuen arte.

Milaka kilometro hanketan

Hilabetean hiru lasterketa baino gehiago egin ditu Raul Gomezek 2018an. Momentuz, 39. Hamalau irabazi ditu, eta beste hamar aldiz igo da podiumera: bosna bigarren eta hirugarrenen postu pilotatu ditu. Aurtengo gizonetzko kirolari nabarmenena izateko meritu ugari egin ditu.

"Dibertitzeko eta ariketa fisikoa egiteko" hasi zen lasterka 43 urteko herritarra. 2011n erabaki zuen serio hartzea, eta ordutik sekulako emaitzak lortu ditu, milaka kilometro pilotuz hanketan. Kirolprobak liga bost aldiz irabazi du ordutik. "Eskerrik asko nirekin entrenatzen duten lasterkariei, babesleei eta, nola ez, familiari; arrebak bultzatu ninduen hastera".

Hiru diziplina uztartzen

Itsaso zabaletik bizikleta gainera, eta pedalei eragitetik lasterka egitera. Hiru diziplina uztartzen dituen triatloian aritzen da Pili Bodegas. Beteranoen kategorian zeresan handia ematen ari da 2013tik. Bost urteotan makina bat probatan parte hartu du, bat baino gehiago irabaziz. Orain arte egindako kirol ibilbidea saritu du Kirol Batzordeak.

Triatloiak prestatzeaz gain, bere euskara maila ere entrenatzen ari da Bodegas. Sari banaketa ekitaldian azaldu zuenez, oraindik kostatzen da egiten zaio erraztasunez aritzea, baina hizkuntza horretan eman zituen eskerrak larunbatean. "Espero dut sari hau erreferente izatea herriko emakumeentzat: erakusten du bateragarriak izan daitezkeela lana eta familia, kirol munduan zure ametsak betetzearekin". Andoni Illarramendi senarra eta Akiles semea nabarmendu zituen triatleta zailduak.

Hirugarren urtez banatu ditu udalak sari horiek. Iaz Eneritz Busto atleta, Axier Arteaga pilotaria eta Mikel Etxarri futbol entrenatzailea nabarmendu zituen. 2016an, berriz, Aizpea Arroyo gimnasta, Jon Ander Puertas errugbi jokalaria eta Txema Indias kirol zuzendaria.


Abenduak 28 eta 29


Txu-Txu trenna ibiliko da kaleetan zehar.


Ordutegia: 11:30etik-14:00etara eta 17:00etatik-20:00etara.

Bidaia dohainik izango da. Okendo Plazatik irtengo da

Eguberri zoriontsuak eta Urte Berri On










Carbayeda, Pozo, Etxeberria eta Romero, Euskadiko Txirrindularitza Federazioak emandako sariekin. E. POZO

Buruntzazpiko gazteak saritu ditu federazioak

Pista eta errepideko Espainiako txapelketetan eskuratutako postuengatik saritu dituzte Pozo, Romero, Etxeberria eta Carbayeda txirrindulariak. Azken horrek, gainera, lehen urteko kadeteen Gaztetxoeren trofeoko bigarren postua irabazi du

Txintxarri

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako lau kide saritu ditu Euskadiko Txirrindularitza Federazioak 2018. urteko jaialdian. Donostiako Amara Plaza Hotelean egin zuten sari banaketa, joan den larunbatean.

Euskadiko Txirrindularitza Federazioak Buruntzazpiko Asier Pozo, Jaime Romero, Beñat Carbayeda eta Haimar Etxeberria gazteen jarduna saritu du. Lauak Euskadiko Selektzioarekin lehiatu

dute 2018. urteko Espainiako txapelketetan, eta podiumeko lehen postuetan egon dira.

Apirilean Tafallan (Nafarroa) izan zen pistako txapelketan Romerok Espainiako txapela eskuratu zuen Scratch modalitatean. Gainera, Euskadi kadete mailako taldea jazarpen modalitateko irabazle izan zen. Taldean Romero eta Asier zeuden.

Uztailean Baños de Molgasen (Ourense) antolatu zuten kadete

mailako errepideko txapelketan ere fin ibili ziren Buruntzazpiko gazteak. Taldeko erlojupekoan brontzea lortu zuten Pozok, Carbayedak eta Etxeberriak. Horrez gain, Pozok bakarka errepideko probako brontzea kolkoratu zuen.

Bestalde, Carbayeda herritarrek sari bat ere eramane zuten etxera, errepideko lehen urteko kadete mailako Gaztetxoeren trofeoko bigarren postukoa, hain zuzen ere.

Marka pertsonal ugari Neguko Ligako azken jardunaldian

Abenduaren 29an, Eguberrietako 36. Nazioarteko Saria lehiatzen izango dira Buruntzaldea IKTko igerilariak

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko infantil, junior eta absolutuek Neguko Ligari "maila onean" eman zioten amaiera Ordizian.

Igeriketa taldeko hamabost gazte aritu ziren, eta 21 marka pertsonal ondu zituzten. Horien artean, taldeko lau errekor berri: 200 m. bular probako taldeko 15 urteko errekorra, eta igeriketa egokituko S8ko 50 m. eta 200 m. librekoak eta S14ko 50 m. tximeleta.

Aurtengo Neguko Ligak lau jardunaldi soilik izan ditu. Igerilarien garapena ikusteko zailtasunak ematen ditu, baina Borja Apeztegia gustura agertu da taldeko igerilarietako egindako lanarengatik. "Orotara, 88 izan dira gure igerilarietako lau jardunaldi hauetan lortutako igerileku laburreko marka berriak".

"Lehiaketa garrantzitsuagoak egutegian gerturatzen joan ahala, eta lehiaketa horietarako parte hartzeak prestatzen goazen heinean, gurek emaitza onak lortuko dituztela uste dugu," esan du.

Igerilariarentzat lehen hitzordu garrantzistua abenduaren 29an izango da, Paco Yoldin, Eguberrietako 36. Nazioarteko Sarian. "Denboraldiko benetako lehen azterketa izango da, aurreko denboraldian jada Espainiako zein gorago mailan aritu ziren taldekideentzat, eta baita besteentzat ere".

Bestalde, Gipuzkoako Kluben Koparako sailkapenaren zain dago Buruntzaldea IKT. "Neguko Ligako lau jardunalditan zehar lortutako puntuazioaren arabera, A edo B sailkapenak egongo dira, eta horren arabera lehiatuko da taldea".

Kirol instalazioen urteko alokairua egiteko epea ireki da

Kirolen Udal Zerbitzuak erabiltzaileek 2019. urtean hainbat kirol instalazioen epe luzeko alokairuaren eskaera egiteko epea ireki du.

Kirol Guneko pilotalekua, tenis pistak, pista balioanizduna eta Maialen Chourraut kiroldegiko padel pista dira alokatu daitezkeen instalazioak.

Eskainiko diren orduak eta erabiliko diren arauak ezagutu nahi dutenek dagokien instalazioan kontsulta egin dezakete.

Instalazioen bat erreserbatzeko asmoa duten erabiltzaileek eskaera formalizatu beharko dute Maialen Chourraut kiroldegiko bulegoan, ondoko ordutegian: astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 12:30era, eta 17:00etatik 19:00etara.



SUGATE

SUKALDEAK

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak



Eguberri zoriontsua opa dizuegu!


Pintore Kalea 5 - Lasarte-Oria
Tel. 943 36 14 71
sugatesukaldeak@gmail.com - www.sugate.net

Eguberri eta Urte Berri on!

TABERNA Buenetxea KAFETEGIA

Gabon eta Urte Zahar gauetan
GAU OSOA IREKITA!!

Eguberri eta Urte Berri egunetan
eguerdiko 12.00etatik aurrera
IREKITA!!



Pablo Mutiozabal 2, Lasarte-Oria
Tel. 943 36 95 08

Bideo Lagunak



Etxekotresna
elektrikoetan adituak



ZERBITZU TEKNIKO PROPIOA

Zatoz ezagutzera gure
GABONETAKO
eshaintza bereziak!

Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | www.bideolagunak.com

INPRENTA
offset eta digitala

DISEINU GRAFIKOA

DISEINU EDITORIALA

Goza ezazue jai hauetan
Urte berri on!

antza

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Zirkuitu Ibilbidea 2 · 20160 LASARTE-ORIA
Tel. 943 370 738 info@antza.eus
www.antza.eus



2019 zoriontsua
opa dizuegu!



ILLARRETA

ITURGIINTZA ETA IGELTSERITZA

BULEGOA

Geltoki kalea 14 - Lasarte-Oria
Tel. 943 36 31 47 eta 943 36 17 52

info@illarreta.com



TAILERRA

Oialume Bidea, 24 - Astigarraga
Tel. 943 33 17 54

- Zink, berun eta arbelean eraikuntzak eta konponketak
- Instalazioak: garbitzeko ura, berogailua, gasa, zoru bero-emailea eta aire girotua
- Erakusketa eta salmenta: aparatu sanitarioak, kanilak, komuneko altzariak, manparak eta osagarriak

- Igeltseritza orokorra
- Etxebizitza eta lokalen berrikuntza osoa
- Gremioen koordinazioa
- Arreta pertsonalizatua



Juanito Egaña eta Mari Angeles Carrera, elkarrizketa egin ostean. TXINTXARRI

"Mendizalea lehen laguna zen beti; orain ez du agurtzen"

JUANITO EGAÑA ETA MARI ANGELES CARRERA MENDIZALEAK

Adina ez da eragozpen bat betiko zaletasunaz gozatzeko: egunero mendi buelta egiten du Egañak. Ostadarrek saria eman dio aurten, mendiko baloreen transmisioagatik

Adrian Garcia

Bizitza osoa eman dute Juanito Egaña (Lasarte-Oria, 1941) eta Maria Angeles Carrera senar-emazteak mendiari lotuta. Bizitzeko modu bat egin dute mendia, lagun artean eta familian gozatzeko, balore jakin batzuetan

oinarrituta. Mendiaren baloreetan, hain justu: "Eskuzabalasuna, adiskidetasuna, elkartasuna". GPS eta bestelako gailurik ez zeuden garaitan egiten zituzten txangoak eta espedizioak. Ahoz transmititzen zuten orduan

jakintza, gailurrera iristeko bideen eta mendiko bestelako gorabeheren nondik norakoak. Baina ordutik asko aldatu da mendira joateko modua. Gizartea gero eta indibidualistagoa egin den heinean, mendi elkarteak kideak galtzen joan dira. "Orain

bakoitza bere kasa doa mendira, eta askok ez dute agurtu ere egiten".

Zer moduz zaudete? Dirudieneg segitzen duzue mendi bueltak ematen.

Juanito Egaña: Bai, segitzen dut. Har hori sartu zitzaidan gaztetan, eta ohitura horrekin segitzen dut.

Maria Angeles Carrera: Egunero, egunero joaten da. Txarra edo ona egin. Asko ibili gara elkarrekin, baina belauna gaizki daukat, eta debekatu egin didate. Orain dela 22 urte utzi behar izan nuen mendia.

Faltan botatzen al duzu?

M.A.C.: Oso gaizki pasa nuen hasieran, oso gaizki. Azkenean zure buruari esan behar diozu ezin duzula, eta beste erremediorik ez dago. Segitzen nuen txangoetara joaten, baina ez nintzen mendira igotzen.

Omenaldia egin zizueten Ostadarrek aurten. Nola hartu zenuten?

J.E.: Ez nuen espero. Ilusio asko egin zidan gutaz akordatzeak.

M.A.C.: Mendian gure izateko era horrela izan da: gurekin etortzen zena, nahiz eta ez ezagutu, gure laguna zen. Min hartuta topatu genuen behin bat, lagunak hor utzita, ezin ibili zuela.

Zer egin zenuten?

J.E.: Lagunek bakarrik utzi zuten. Baina ospitalera joan behar zuen lehenbailehen. Guk lagundu genuen beraino jaisten.

M.A.C.: Beheraino jaitsi, elkarrekin bazkaldu, kotxean hartu eta autobusera eraman genuen.

Balore horiek aldatu direla uste duzue?

M.A.C.: Mendizalea lehen laguna zen, beti. Orain agur ere ez dizute esaten. Laguna ez da sekula bakarrik utzi behar.

J.E.: Gauza txar asko entzuten dira oraindik mendian. Zer gertatzen da espedizio askotan? Gauza asko dira mendizalea izatea.

Nola sortu zitzaizuen mendian ibiltzeko zaletasun hori?

J.E.: Nik beti egin dut kirola. Soldaduska baino lehenago futbolean aritzen nintzen. Txarra nintzenez, atletismora pasa nintzen. Hernanirekin ibili nintzen korrika. Aita hil zenean, zazpi anai geratu ginen, eta zaharrena nintzenez, kirola utzi eta lanean hasi behar izan nintzen. Gutxienez asteburuak

aprobetxatzen nituen mendira joateko.

M.A.C.: Guk baserria genuen, eta esnea saltzen genuen; jendea etortzen zitzaigun esne bila. Jolasean ibiltzen ginen: "Ezetz igo halako tontorrera". "Baietz". Horrela sartu zitzaidan mendietara joateko harra.

Nondik ibili zarete? Urruneko espedizioetan parte hartu al duzue?

J.E.: Alpeetan, Pirinioetan eta Kantauriko mendilerroan. Horrez gain, Euskal Herriko gailur guztiak ezagutzen ditut.

Egun askotako espedizioak ere eginak dituzu, ezta?

J.E.: Hemezortzi egunetakoak, 26 egunetakoak... Zeharkaldi onak egin ditut.

M.A.C.: Transpirenaika egina du; Hondarribitik hasita Pirinio osoa gurutzatu zuen. Santuak ez dakit zer emango ote zion, baina Donejakue bidea hainbatetan egin du. Hemendik eta handik, alde guztietatik.

Euskal Herrian igotako mendi guztietatik, zein duzue gustukoena?

J.E.: Asko daude politak: Larrunari, Txindoki, Udalaiz, Aizkorri... Gertu daudenak bereziki ditut gustuko, askotan joan izan naizelako.

M.A.C.: Nik ez daukat berezirik, asko gustatzen zaizkit denak.

Santa Barbara elkartean ibili eta gero, Batasuna mendi elkartearen sorreran egon zineten.

J.E.: Santa Barbaratik atera ginen Batasuna sortzeko. Bost talde ginen: Añorga, Hernani, Usurbil, Orio eta Lasarte.

M.A.C.: Bost taldeak elkartzen ginen autobusak betetzeko. Ehun bat bazkide baginen.

Zergatik utzi zenuten Santa Barbara gero Batasuna sortzeko?

J.E.: Politika asko zegoen tartean, eta nahiago dut horri buruz ez hitz egin. Santa Barbarako presidente nintzen garai hartan. Banandu egin ginen, eta Batasuna sortu genuen.

Lehen joera gehiago al zegoen mendi elkarteetan biltzeko?

J.E.: Ez genuen kotxerik ez ezer. Orduan autobusak antolatzen genituen denon artean. Bestela zure kasa joan behar zenuen,

"MENDIA GOZATZEKO DA, EZ KORRIKA EGITEKO; BI EDO HIRU ORDUTAN EGIN, EZ DA LEKUZ ALDATUKO"

trean edo autobusean. Gero hasi zen jendea independenteago izaten, autoaren laguntzaz. Eta orain mendia masifikatuta dago. **M.A.C.:** Niri pena handia ematen dit. Orain menditik zoaz eta askok ez dute agurtu ere egiten. **Lehenago ere beharrezkoa zen jakitea nondik joan. Orain Internet eta beste gailuei esker ez da horren beharrik.**

J.E.: Orain, gainera, GPS eta horrelakoekin... Nik ez dut sekula ibili horrelakorik. Ibili, ibili eta ibili... horrela ikasten genuen. Mendi ondoko herria begiratu mapan, eta horrela orientatzen ginen.

Beste herrietako elkarteetan berdin pasatzen al da?

J.E.: Bai, inor ez dabil orain. Uste dut Usurbilgoek urtean behin egiten dutela martxa bat, Usurbildik Arantzazura.

Ostadarreko Mendi sailak ere antolatzen ditu oraindik martxak, ezta?

J.E.: Buruntzakoa antolatzen dute, urte zaharrear. Gero urtero beste bat egiten dute, 40 kilometrokoa edo.

Haiekin joaten al zara?

J.E.: Ez. Fortunako martxetan ibiltzen nintzen ni, eta gero nire kasa. Orain dela gutxi hasi dira hori egiten. 73 urterekin utzi nion martxa horietara joateari.

Urte bukaeran joaten al zara Buruntzara?

J.E.: Ni beti Aizkorrira joaten nintzen urte bukaeran, eta urteberri egunean Adarrara.

M.A.C.: Azkenekoan motxila prest zuen, baina erresidentzian amaitu zuen.

Zer gertatu zitzaizun?

M.A.C.: Besoan mina zuela, eta ospitalera eramane zuten. Ez zuen



Mari Angeles Carrera eta Juanito Egaña, gaztetan eginiko espedizio batean. JUANITO EGAÑA

joan nahi, motxila prest zuelako mendira joateko.

J.E.: Hiru esfortzuko proba egin zizkidaten, baina ez zuten ezer antzeman. Etxera joaten utziko zidatela pentsatu nuen, baina eskaner bat egin zidaten, eta azaldu zen arteria bat oztopatua neukala. Duela lau urte izan zen.

Halere, orain ondo zaude, ezta?

J.E.: Bai, baina mantsoago joaten naiz, lasaiago. Lehen azkar ibiltzen nintzen. Orain ezin dut inora joan, toki guztietan korrika ibiltzen dira-eta orain.

M.A.C.: Baina ez diot uzten bakarrik joaten mendira.

Lagunekin edozein tokira, baina bakarrik ez. Edozer gauza gertatzen bada...

Ez al zaizue ondo iruditzen mendian korrika egitea?

M.A.C.: Niri oso gaizki iruditzen zait. Nik beti esaten dut: mendia bi edo hiru orduetan egin, ez da lekuz aldatuko. Gozatu egin behar da mendian, ez korrika ibili.

J.E.: Niri ez zait gaizki iruditzen. Gustuko ez dudana da martxa bat antolatzea, oinez egitekoa, eta jendea aprobetxatzea bidea markatuta dagoela korrika egiteko. Bere gisa ez dira joaten mendira, ez dituztelako tokiak

ezagutzen. Aprobetxatzen dira besteen martxaz korri egiteko, eta ez zait bidezkoa iruditzen. Bere gisara joan nahi badute, primeran. Uste dut ez dutela irudi ona ematen: mendi altuetan ibiltzen dira galtza motzetan eta zapatiletan. Jende askok imitatu egiten dituzte, eta horrela istripu asko izaten dira.

Zuhurtzia galdu al da mendian?

J.E.: Bai. Gainera gero eta zikinkeria gehiago ikusten dut. Ez dute motxila eramaten, dena han uzten dute.

Esan duzu mendia masifikatuta dagoela.

J.E.: Badaude Euskal Herrian inor ikusten ez duzun mendiak. Inor ez da egoten, edozein egunetan joanda ere. Txindoki, Adarra, Hernio, Uzturre... ordea, jende asko egoten da.

Ikusi al duzue Michelinen jarri duten rokodromo berria?

J.E.: Ez dut ikusi, baina entzun dut hari buruz hitz egiten. Ondo iruditzen zait. Ikasteko oso ona da, batez ere gazteentzako.

M.A.C.: Baina orain gazteak ez doaz asko mendira. Denak futboleak daude. Eta sakeleko telefonoa erabiltzen ere espezialistak dira.

INFORMATIKA
MARTINEZ MULTIMEDIA

Eguberri on!
Ezagutu gure eskaintzak, beste inora jo aurretik!

Uzturre plaza 2 behea - Tel/faxa: 943 36 05 91
Lasarte-Oria

pikabea
ASEGURU ARTEKARITZA

Seguro mota guztiak. Eskatu aurrekontua!

Eguberri zoriontsua opa dizuegu!

Uzturre Plaza, 8
Lasarte-Oria
Tel.: 943 37 11 18
pikabea@pikabeaaseguruak.com

Zatoz gure jaki goxoak dastatzera!

Pintxoak
Razioak
Ogitartekoak
Sandwich-ak
Hanburesak
Plater konbinatuak

VINA del MAR
TABERNA-KAFETEGIA

Zorionak eta Eguberri on!!

Ola kalea 2, Lasarte-Oria • Tel. 943 36 27 68



Martin Berasategi 44 urte daramatza sukaldaritzan lanean. TXINTXARRI

"Sekula espero ez nuen ametsa bizitzen ari naiz sukaldaritzan"

MARTIN BERASATEGI GOI MAILAKO SUKALDARIA

Beste bi Michelin izar berri eskuratu ditu sukaldariak uela gutxi eta dagoeneko hamar oroigarri bildu ditu. Lasarte-Oriatik mundura zabaldu du bere goi mailako sukaldaritzan

Maddi Zaldúa

Gertukoa, konformagaitza eta pertsona ona. Horrela definitzen du bere burua Martin Berasategi (Donostia, 1960) sukaldariak. Familiak Donostiako Alde Zaharrean zuen jatetxean eman zituen sukaldaritzako lehen pausuak, eta hamar Michelin izar eskuratu, goi mailako sukaldaritzan ari da burubelarri. Mundu zabalarekin lehiatzen du egunero, baina oso harro agertu da Lasarte-Oriatik lortzen ari den guztiarekin. Etorkizunean ere

bere jatetxe sarea handitzen jarraituko du.

Nola bizi zenuen herriak egindako aitortza? Zer iruditu zaizu eskultura? Oso hunkituta. Zure herrian profeta sentitzeak fibra senikorrena ukitzen dizu. Nork esango zidan honaino iritsiko nintzenik. Duela 44 urte sukaldean ikasten hasi nintzenean, ia ia putakeri bat izan zen. Oso harro sentitzen naiz herritarrek egindako omenaldiarekin, eta baita handik gutxira jasotako bi izar berriekin.

Ez daukat hitzik eskertzeko, ezta sentitzen dudan guztia azaltzeko ere. Bizipen hauek sentitu, bizi egin behar dira. Profesional gisa jaso nezaken guztia jaso dut, baita pertsonalki ere. Nire bizitza amets bat da.

Edonork ezin du hori esan...

Gaztetan sukaldean hasi nintzenean ez nekien sukaldari izateko aukerarik izango nuen; sukaldean arituta soldata bat irabazi ahal izango nuen. Nire herriko enbaxadore sentitzen naiz, baita nire lanbidekoa ere.

Martin Berasategiren ibilbide guztian ez naiz ni bakarrik izan, gu izan gara beti. Beti sinetsi dut talde lanarekin lortutako arrakastan. Inoiz ez dut ezer ezkutatu; jakintza transmititu dut.

Hasierak zailak izan arren, sukaldean jarraitzea erabaki zenuen.

Ezinezkoa zen bestela. Nire bizitzako lehen soinuak sukaldekoak izan dira; hegaztiak, arraiek, haragiek ikatz labeetan erretzen zirenean egiten zituzten soinu haiekin hazi nintzen. Zailtasunak zailtasun, egindako lanarekin eta esfortzuarekin urte guzti hauetan sukaldaritzaren norabidea aldatzeko gai izan gara.

Oso goiz hasi zinen sukaldean?

15 urterekin hasi nintzen bertan, eta 17rekin astean sei egunegaz egiten nuen lan. Libratzen nuen zarpigarrenean, Frantziara joaten nintzen gozogintza, txarkuteria eta ogigintza ikastera. Pilak kargatuta etortzen nintzen handik, bodegoian gauzak egiteko. Horrela lan egiten pasa nituen hamabi urte; sei egunetan lan egin eta zarpigarrenean ikastera.

Eta 25 urterekin lortu zenuen lehen Michelin izarra.

Bai, bodegoiean nenbilela. Horrek gure bizitza aldatu zuen. Inoiz ez zioten bodegoi bati izarrik eman. Sukaldari gisa amets egiten hasi nintzen. Oiartzunen, Ulian bizitzen egon nintzen, baina egun batean, Ana Urtxuegiak deitu zidan, eta Lasarte-Oriako jatetxearen alde apustu handia egin zuen. Hor hasi zen Lasarteko jatetxearen ibilbidea. Nik hitz eman nuen inoiz Lasarte-Oriaren izena garrantzitsu egin banezakeen, hala egingo nuela, eta gehiago ezin zait eskatu, halaxe ari da izaten.

Bartzelonako jatetxe batek Lasarte du izena, eta beste batek Oria.

Hiru Michelin izarreko lehen jatetxea Lasarte da, eta Bartzelonako besteari Oria jarri nion.

Euskal Herrian eta Bartzelonan bakarrik ez, munduko beste hainbat lekutan ere badituzu jatetxeak.

"LASARTE-ORIAK HORRELA KO AITORTZA EGITEA OSO POLITA IZAN DA, OSO HUNKIGARRIA"

Horietako bik Michelin izar bana eskuratu dute berriki, gainera.

Ilusio handiz. Izerdi tantaz tanta lortu dugunaren aitortza da. Oso momento hunkigarriak izan dira, eta inoiz amestu nuena baino infinitu aldiz gehiago ari naiz gozatzen. Nire jatorriari asko eskertu behar diet. Orena izaten saiatu behar nuela erakutsi zidaten aitak, amak eta izebak. Eta persona gisa, duela urte asko Donostikoa Alde Zaharrean inork ezagutzen ez nindueneko berbera naiz.

Nire inguruan maitasun asko ikusten dut; asko maite nautela sentitzen dut.

Oroigarri berriak behar bezala ospatu al dituzu?

Bai noski. Lisboan nire lagun Karlos Argiñanoren K5 txakolinarekin ospatu dugu. Azken hamar urteetan edari horrekin egin ditugu ospakizunak, eta zortea ematen didanez, oraingoan ere horrekin ospatu dugu. Hamarreko txakolina da, Karlos bezala.

Hainbeste arrakastarekin, nola mantentzen dira hankak lurrean?

Sagarrondo batek, geroz eta sagar gehiago izan, geroz eta sendoago eusten dio lurrari. Niretzako erraza da hankak lurrean mantentzea, baina ulertzen dut denok ez garela berdinak. Beti saiatzen naiz nire burua gaitzitzen, freskoa, munduko pertsona errazena naizela uste dut. Sukaldeko ero bat naiz. Gazte gaztetatik gauza pila bat egiteari uko egin nion, sukaldaritzari eutsi eta gustuko nuen lanbidean aritzeko.

Beti ikusten duzu botila erdi bete.

Konformagaitza naiz izatez. Nire botila beti dago erdi beteta. Oso eskuzabala naiz nire ingurukoekin, eta oso argi daukat pasa zaizkidan gauza on asko naizen pertsona izatearen ondorio direla.

Badu inolako antzekotasunik orain 44 urteko sukaldaritzak gaur egungoarekin?

Ez du inolako antzekotasunik. Biharrak gaur baino gehiago izan behar du sukaldean. Hala ere, izugarritzko errespetua diot beti jaso dudana sukaldaritzan

"DUELA 44 URTE EZ NEKIEN SUKALDARI GISA SOLDATA BAT IRABAZTEKO AUKERA IZANGO NUEN"



herentziari. Haiek nire sustraiak dira, eta horien gainean hazi da sukaldari ero hau. Eta horri esker geroago inork lortu ez duena lortzen ari naiz. Nire familia izugarria zen. Oso langilea, sana eta oso eskuzabala. Horrelako familia bat izateko zortea duzunean, herri jator batean bizi zarenean eta laneko taldeak ere Martin Berasategui handia egiten duenean, ni inoiz baino pila kargatuagoekin nago etorriko diren erronkei aurre egiteko.

Eta nola ikusten duzu gaur egungo sukaldaritza? Eta belaunaldi berriak?

Inoiz izan duen osasunik onenarekin ikusten dut euskal gastronomia. Gainera ez daukat zalantzarik ezkerretik pasako gaitzuzela, eta hori horrela ez bada, gurea izango da errua. Horrek esan nahiko du euskal sukaldaritzaren aldirik goxoenean ez diegula ezagutza nahikoa transmititu. Baina hori ez da gertatuko; konbentziturata nago sukaldari trebeak datozela, gazteak freskura eta talentu oso ona dute.

Zein da Martin Berasategiren arrakastaren giltzarria?

Detalle asko izan dira, baina bat aukeratzekotan pertsona gisa naizen bezala izatea. Talde asko dira, jende asko da Martin Berasategirengatik dena ematen dutenak, baina hori naizen pertsona izatearen ondorioz lortu dut. Oso pertsona erraza naiz, eta aitortu behar dut horren atzean esku oso langile bat ere

"BEZEROAK DIRA JATETXEAREN JABEAK; HORIEK GABE ALPERRIK ARIKO NINTZATEKE"

badagoela. Nire bizitza proiektuz beterik izatea ere ezinbestekoa da. Ez dut beldurrik, ezta lotsarik ere, munduan gertatzen zaidanaren parte egiten dut nire ingurua. Nire enpresan denak dira ezinbestekoak.

Pentsatzen dut etengabeko berrikuntzan aritzea ere ezinbestekoa dela bezeroak erakartzeko.

Sukaldaria estankatzen den momentutik aurrera hiltzen da. **B e r r i k u n t z a n** d a g o ezberdintasuna, ezinbestekoa da, baita errespetua ere. Gaur arte egin dudanak, nagoen lekuraino heltzeko balio izan dit, baina garrantzitsuena gaur egingo dudana da. Jarrera hori eze giltzarria da aurrera egiteko. Errepikapena aspergarria da sukaldean. Sortzailea izanda, munduko *gourmetak* Martin Berasategiren obra ikustera etortzea lortu dugu.

Hilario Arbelaitzi estimu handia diozu. Garrantzitsua izan da zure sukaldari ibilbidean?

Nik Hilario Arbelaitz [Zuberoa jatetxeko sukaldaria] bezalako lagun on bat izateko zortea daukat. Inoiz izan dudan ispilurik handiena da niretzat. Sukaldari guztien artean guztiok gehien maite duguna da bera. Sukaldari handi bat baino gehiago da; pertsona zoragarria eta dituen baloreengatik bizitzaren eta sukaldaritzaren lezioa da. Hilario jaio izan ez balitz, euskal sukaldaritza ez litzateke gaur dena izango. Berarekin batera ere, noski, Karlos Arguiñano, Pedro Subijana, Juan Mari Arzak, Luis Irizar ... Eurak baino 15 urte gazteagoa naiz, eta euren artean egonda, saiatu naiz eurengandik jasotako herentzia ederra hobetzen. Helburuak lortzeko odola utzi behar izan



Martin Berasategi txikitik, senide eta lagunekin Donostiako Bodegon Alejandro jatetxean. MARTIN BERASATEGUI

bada bidean, hauek izan dira horren eredu.

Eta gertuko ekoizleak ere kontutan hartzen dituzu? Garrantzitsua da Martin Berasategiren sukaldean bertako produktua?

Beraien guztien enbaxadore naizela esango nuke. Jatetxearen ekosistema guztia jartzen dute balioan. Nirekin doaz edonora. Bretxako merkatuko semea naiz [aita harakina zuen] eta niretzat ezinezkoa da bertako ekoizlerik gabeko sukaldaritza egitea. Oso pribilegiatua sentitzen naiz. Kantauriko edozein portutan itsasontzi bat itsasoratzen ikusteak izugarritzko indarra ematen dit. Badakit zein esfortzu egin behar duten gure erosketa saskia osatzeko. Goizero goizero joaten

naiz txanpiñoien bidera paseatzera. Bertan aurkitzen ditudan baseritarren esku zartatuak ikustea izugarria da. **Sukaldean hainbetse ordu pasa eta gero, zein da bezeroengan lortu nahi duzun azken helburua?**

Sukaldaritzaren bidez ahalik eta zorientasun handiena sentitu dezatela.

Esan ohi duzu eurak direla zure jatetxeen jabeak.

Bai noski. Bezeroak jatetxera etortzen ez badira, zertarako nago ni hemen? Bezeroentzako sukaldatzen ez duten sukaldariak ez ditut ulertzen. Bezeroek egin dute Martin Berasategi handi, eurak gabe ez nuke lortzen ari naizen guztia lortuko.

Oso gertukoak zara beraiekin.

Oso gertuko pertsona naiz, bai. Beti gustatzen zait jakitea zer moduz jan eta edan duten, nola sentitu diren. Niri bezero gisa gustatuko litzaidakeen Martin Berasategian pentsatzen dut, eta horregatik naiz hain gertukoak. **Aitaren sinadura mantendu duzu zure marka ezagutarazteko.**

Gazte nintzela hil zen nire aita, eta Lasarte-Oriako jatetxea irekitzera nindoala, nire aitak sinatzeko erabiltzen zuen modu berean sinatzea erabaki genuen. Berak zortzi bat gehitzen zuen hizkien gainetik. Guk hori kendu dugu, baina bestela berdina da. Bera izan da nire sukaldaritza ibilbidean lortu dudana ikusi ez duen bakarra, eta berari omenaldi egin nahi izan diot.

MUGICA & ABURRUZA

aseguru artekaritza, S. L.

*IBILGAILUAK

MOTOZIKLETAK
AUTOMOBILAK
AUTOKARABANAK
FURGONETAK
KAMIOIAK...

*MERKATARITZA

*BIZITZA ETA ERRETIROAK

*OSASUNA

*ISTRIPUAK ETA GAIKOTASUNAK

*ERANTZUKIZUN ZIBILA

*ETXEBIZITZA ETA KOMUNITATEAK

*INBERTSIOAK

*PYMEAK...



eguberri on!



Ganbo kalea 1, LASARTE-ORIA - Tel.943 36 22 75 & FAXA: 943 37 24 13

Argazki berezietz betetako urtea

Aktore, kirolari, musikari, sukaldari... Iñigo Artola herritarrak aurten ere hainbat pertsonaia ezagunen argazki eta sinadurak bildu ditu. Argazki hauek dira adibide argia: Joseba Ezkurdia pilotaria, Danny de Vito, Laetitia Casta eta Willy Toledo aktoreak eta Andoni Luis Aduriz sukaldaria.



I. ARTOLA



I. ARTOLA



I. ARTOLA



I. ARTOLA



I. ARTOLA

Gabonetan.....

KOMIKIAK

egingo ditugu!



Abenduak 26 eta 28

11:00etatik 13:00etara

Anbulategiko 2. solairuko hitzaldi aretoan

LH3, LH4, LH5 eta LH6koentzat

Doan. Izen-ematea: aisia@ttakun.eus, 943 37 14 48 eta 695 785 392 edo Ttakunen bulegoan





Gabonetako zozketak TTAKUN-en

Errigorako bi saski zozketatu ditugu gabonak direla eta. 2018. urtean TXINTXARRI aldizkarian publizitatea jarri dutenen artean, eta baita Ttakun Kultur Elkarteko bazkideak saritzeko. Bezeroen oterra Otegi Sagardotegiari egokitu zaio; 100 bezeroen artean eurek lortu dute saria. "Pozik" jaso du albistea Sollanea baserriko familiak. Pili Mercaderrek jaso du saria, eta aurreratu du laster hasiko dutela sagardotegi denboraldia. Zorionak eta gozatu!

Bestalde, bazkideen artean zozketatutako oterra Edurne Pradilla Kerejetari egokitu zaio. Telefonoz deitu genionean "poz-pozik" jarri zela aitortu du; izan ere zortekoa da Edurne, aurten eman bait du izena Ttakun Kultur Elkarteko bazkide bezala.

Gabon hauetan Nafarroako produktuak dastatzeko aukera ederrak izango du Edurnek ere, Zorionak!



TXINTXARRI



TXINTXARRI

Zorionak eta Eguberri on!!

ADURIZ DE LASARTE, S.A.

BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- ✓ Odolkiak
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Basurde burua
- ✓ Txistorra
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Baserri pateak

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria
Tel: 943 36 12 78 - 943 36 16 55 - 943 36 24 51

LIBRERIA MAITE

Eguberri on!
Geltoki kalea 12, Lasarte-Oria
Tel.: 943 37 27 91

GAROA **taberna**

Koktel bereziak eta konbinatuak

Eguberri on eta 2019 zoriontsua izan dezazuela!

Sagardotegi kalea 4, LASARTE-ORIA

Ondo pasa eguberriak!

Tiburtzio

Artizar

Kale Nagusia 12, beheka atzealdea (Okendo plaza) LASARTE-ORIA

ALBA

ARROPA DENDA

Zatoz eta eskuratu Aterpeako zozketarako txartelak!

%25 beherapena

SOAKED ese 0 ese NAFNAF

Nagusia 65 beheka • Lasarte-Oria • Tel.: 943 574450

LARRE JATETXEA

18€ **Asteburuko menua**

19,90€ **Menu begetarianoa**

18€ **Babarrun-jana + txahal saiheskiak**

Zorionak eta Eguberri on!!

Larrekoetxe bidea, 10 LASARTE-ORIA
943.361012 - 679.930895

Boli Kostako gazteei laguntzen

Elkartasun mugimendu handia dago Euskal Herrian. Asko dira motxila hartu eta beharra duten herrialdeetara laguntzera doazenak. Boli Kostako Man eremuan gazteekin lan egin zuten abuztuan Lasarte-Oriako Eliza ebanjelicoko kideak

Nerea Eizagirre

Abuztuaren bigarren hamabostaldian Lasarte-Oriako Eliza ebanjelicoko dozena bat kide Boli Kostara joan ziren, bertako Jeune Espoir d'Afrique elkarteak Man eremuan duen proiektuan haien harritxoak jartzera. Zentroan 2011. urtean jazoetako Guda Zibilaren eraginez umezurtz geratu edo haur soldadu izandako gazteekin egiten dute lan, etorkizunean ibilbide profesionala izan dezaten.

Urte batzuk dira Lasarte-Oriako Eliza ebanjelikoak proiektuari buruz jakin zuela. "Gure elizara etortzeko gonbita egin genien misiolariari, han egiten zuten lana ezagutzera emateko. Misiolari bikotea etorri zen, emakumea Boli Kostakoa da, eta senarra Madrilgoa. Prozesu guztia azaldu ziguten, eta elizako batzuk bertara joateko ideiarri bueltaka ematen hasi ginen," azaldu du Maite Larrañaga Eliza ebanjelicoko arduradunak.

Orduan bidaiaren ideia alde batera utzi zuten. "Denbora behar da bidaiara eta prestaketa guztiak egiteko". Baina beste aukera bat eman zien patuak. "Guk guztia otoitzaren bidez egiten dugu eta Jaunari otoi egin genion seinale bat eman eta aurrera egin ahal izateko. Handik gutxira misiolariak jarri ziren berriro ere gurekin harremanetan, proiektuak eman zituen pausoen berri emateko. Gonbidatu genituen eta haien azalpen berriaren ostean, elizako pertsona talde batek bertara joatea erabaki zuten. Gauza bat dela edo bestea dela, azkenean hamabi bat kide joan ginen".

Proiektua

Boli Kostako Man eremura joan ziren abuztuan, hamabost

egunean bertako gazteekin lan egin eta haien egoera ezagutzera. "Gudak gehien eragin zuen hiri eta eremua da hori".

"Espainiako Cercafrica elkarteak ari zen bertan lan egiten. Ere horretan zeuden arazoez ohartu ziren, gudak eragin handia izan zuen bertakoentzat, umezurtz eta haur soldadu asko zegoen. Datuen arabera, eremu horretan 5.000 bat haurrek jazo zituzten gudaren ondorioak. Eskolaratze eza ere handia zen".

Proiektua martxan jarri baino lehen, ikerketa bat egin zuten hango Eliza ebanjelikoaren laguntzaz. "Orduan udaleku batzuk egin zituzten, eta bi mila bat haurrek parte hartu zuten horietan".

2013an, Jeune Espoir d'Afrique (JEA) elkarteak sortu zuten eta gazteekin lan egiteko proiektua jartzen du martxan Dakuople herrian.

Elkarteak misiolarien zentro bateko eremu bat alokatu zuen, bertan bizi eta ikasgaiak eskaintzeko. "Baina bertako pertsona batek emandako eremuan ari dira etxebizitza eta zentro berria eraikitzen. Etorkizun batean bertara joango dira," esan du Larrañagak.

Proiektuaren muina hain zuzen ere, horretan datza, hezkuntza zentroaren eraikuntza. "Gazteak ari dira horretan lanean eta lanaren bitartez, tresnak ematen zaizkie ibilbide profesional bat egin dezaten. Argindarra, eraikuntza... Talde bakoitzak hiru urteko zikloa egiten du. Gaur da eguna ikasle batzuk irakasle lanetan daudela".

Lanbideaz gain, frantsesa eta beste oinarritzko ezaguera batzuk ere irakasten dizkiete zentroan. "Askok ez dakite ez irakurtzen ez idazten, eta bere hizkuntza

edo dialektoa hitz egiten dute. Bertan yacouba hitz egiten da nagusiki. Zentroan hiru behintzat bazeuden. Elkarrizketa frantsesa erabiltzen dute".

Zentroan 40 bat pertsona daude lanean, eta 30 bat gazte dituzte haien gain. "Gazteen artean aukeraketa bat egiten dute, umezurtzek eta haur soldaduek lehentasuna dute. Gazte hauek kalean bizi izan dira eta ez dute jatekorik izan. Zentroan teilatua eta janaria dute. Lehen taldea 28 bat gaztekoa izan zen".

Zentroan eta herrietan lanean

Lasarte-Oriako taldea Dakuople iristean, bertako jendeak esku zabalik hartu zituela adierazi du Larrañagak. "Udan boluntario ugari joaten da. Bertako jendeak harrera ona egiten die orokorrean eta prest agertzen da edozertan laguntzeko. Haietaz zuri bat hara joatea harrigarria da".

Ikasturte garaia amaituta, gazteek aisialdi ugari zuten eta Lasarte-Oriako eliza ebanjelicoko kideek hainbat tailer egin zituzten haiekin egunean zehar. "Guk genekiena eskaini genien gaztelania, gitarra, piano, bateria, dantza, dekorazioa, mimoa..."

"Bateria tailerrean esate baterako, haien erritmoak baterian nola jo ikasi zuten," jakitera eman du Larrañagak.

"Dantza tailerra ere asko gustatu zitzaie. Gure elizako kide bat zunba irakaslea da eta elkarrizketa erakutsi zieten dantza bat. Ideia denek elkarrekin dantza egitea zen, baina guk behintzat ez genuen bete," onartu du Larrañagak. "Erritmoa dute barruan sartua. Abestiak, dantza eta danborra... Danbor hotsa zentroan edonon entzuten zen. Giro ederra zegoen zentroan".



Kirol ekipamendua, botikak eta umore ona eramane zuten Boli Kostara. M. LARRAÑAGA

Kirol materiala ere eraman zuten. "Saskiak, erraketak, baloiak,... Kirol tarreak egitea zen asmoa, baina gazteak dira eta batetik bestera dabilta."

Gauetan, berriz, hezkuntza espitirualerako tailer batzuk eskaini zizkien Larrañagak. "Nik prestatutako hainbat ekimen egin genituen alde espirituala lantzeko, hausnarketa egin, Bibliaren hitzak entzun eta irakatsi, etb."

Inguruko herrietan ere haurrei irribarrea eragiteko astia izan zuten Eliza ebanjelikoko kideek. "Gu han ginela baliatuz inguruko herrietara joan ziren elkarteko kideak. Irteera horietan haurrekin ekintzak egiten genituen: aurpegiak margotu, puxikekin tailerrak... Haurrez gainezka egon ginen".

Horiez gain, botikak eraman zituen Lasarte-Oriako taldeak. "Bertan oso garesti dira. Beraz, hemen kanpaina bat egin genuen Andoain eta Lasarte-Orian. Gure elizan eta farmazietan jaso genituen. Pila bildu genituen eta Andoaingo Udalak ere lagundu zuen. Maleta guztietan sartu genituen. Oinarritzko gauzak izan ziren: antibiotikoak, bendak..."

Ikasturte garaian joan ez izanak baditu bere aurkakoak. "Gu ez gara ikasturte garaian joan, beraz, ezin izan ditugu ikusi eraikuntza lanak edo alde psikologikoa nola lantzen duten. Baina gazte bakoitzak arduradun bat du. Pertsona hori da gaztea ezagutu eta harekin lan egiten duena. Lan pertsonalizatu bat da. Guk tailerretan izan genuen haiekin egoteko aukera eta kasuren bat ezagutu genuen gertaera latzak bizitakoak".

Gainera, gazteekin harremana sendotzerako orduan, hizkuntza muga bat izan zela onartu du

Larrañagak. "Boluntarioen artean gaztelania erabiltzen genuen, baina gazteekin harremana egiteko itzultzaileak behar genituen. Hori oso frustragarria zen niretzat, haiengana hurbiltzeko eta haien errealitatea zuzenean ezagutzeko ez nuelako aukerarik. Horregatik frantsesa ikasten hasi gara batzuk".

Egoera latza eta tentsioa

Egindako irteeretan herrialdeko egoera ere zerbait ezagutu ahal izan zuen Lasarte-Oriako taldeak. "Kontraste handia dago, batzuk oso aberatsak dira, eta besteak txiroak. Zuriak asko baliatzen gara hango lehengaez, egoerari buelta ematea zail ikusten dut," adierazi du Larrañagak.

"Bertako jendea nekazaritazatik bizi da. Normalean, lurretan lan egiten egoten ziren. Batzuk badaude, profesionalak esango nuke. Baina gehienak nekazariak. Hortaz aparte, kaleetan emakumeak ikusi genituen fruta, platano txigortua, juka eta beste hainbat gauza saltzen. Arroza han oso garestia da," jakitera eman du Larrañagak.

"Oinez doaz gehienak batetik bestera, kotxe bat duena zorteko da. Errepideak ere ez daude egoera onean, zulo handiak dituzte. Zur-industriako kamioiek daramaten kargaren pisua dela eta, hondatzen omen dira. Horrek ere bidaiak egitea zailtzen du, batetik bestera mugitzeko denbora behar da".

Bestalde, guda osteko tentsioak eta beste herrialdeetako muga gertu izateak eremuan eragina duela adierazi du Larrañagak. "Herrietara bisitak egiteko orduan, batera joatea arriskutsua zela azaldu ziguten. Egunean zehar joan eta buelta egin behar genuen. Eremuan lapur taldeak

daude eta herri horretan gainera, hiru komunitate ezberdin bizi dira."

Horregatik, militarren kontrolak ohikoak direla esan du. "Geratzen zaituzte eta denetarik galdetzen dute. Gainera, ez dakizu gu, zuriak bertan egotea ona edo txarra den. Ez genuen arazorik izan, baina herri arriskutsura joatean ere geratu gintuzten eta horrek larritu egin gintuen".

Hori guztiaz gain, sorginkeria eta sinesmenen eragina handia dela jakitera eman du. "Biolentzia eta sorginkeria asko dago. Mendekuaren ideia oso errotua dago. Afrikarren biolentzia gauza espirituala da. Zerbait kaltegarria gertatzen bazait, beste herri bateko norbaitek espiritu gaizto bat bidali duelako da eta hil behar dut. Sorginkeriarri dagokionez, bertan ginela, aztizat zuten ume bat jaso genuen eta zentrorra eraman. Haurra jaino eta ama hil zen, beraz, umea sorgindua zegoela uste zuten bizilagunek. Etxe bateko teilatuan bizi zen eta pertsona batek bakarrik zuen harremana berarekin jaten emateko. Kanean ikusten zutenean jipoitu egiten zuten".

Gauza hauek guztiak badaude ere, bizitzaren ikuspuntu baikorra dute Man eremuko herritarrek. "Beste bizitzeko era bat da. Dagoenarekin bizi behar dira. Ez dituzte gure milikeriak. Pozik bizi dira dutenarekin eta poztasun horrekin ere, egoera zailen egiten diete aurre".

Eliza ebanjelikoko kideek hurrengo urteetan Boli Kostara joateko asmoa dutela jakitera eman du Larrañagak. Horregatik, bidai ahoretan beharrezkoak dituzten gauzak eramateko kanpainak egingo dituztela aurreratu du.



Saharar kanpamentuetako haurrei banatu zizkieten iaz kutxak. SAMARITAN'S PURSE

Elkartasun kutxak, irriak banatzen

Lasarte-Oriako Eliza ebanjelikoak nazioarteko proiektu batekin bat egin zuen duela bi urte, *Operación niño de Navidad*. Senideei, ezagunei eta lagunei jakitera eman ostean, gainontzeko herritarrei proiektuaren berri eman diete azaroan zehar erakundeak Okendo plazan jarri duen karpan.

"Lasarte-Oriako Eliza ebanjelikoko kideak duela bi urte hasi ginen parte hartzen egitasmo horretan. Ingurukoei ere horren berri eman genien eta aurten kalera ateratzea erabaki dugu. Nahiz eta ebanjelistak ez izan, jendeak ere ilusio handiz parte hartu dezake horrelako ekimenetan," esan du Eliza ebanjelikoko arduradun den Maite Larrañagak.

Samaritan's Purse elkarteak darama egitasmoa, baina Espainian, Decision erakundeak arduratzen da kutxen kudeaketaz. Parte hartzen duten pertsonak kutxa bat prestatzen dute edo Internet bidez, erosten dute. "Kutxa horien bitartez inoiz

oparirik jaso ez duten haurrei amodioa banatzea" da helburua Maite Larrañagak azaldu moduan. Izan ere, horietan haurrei baliagarriak zaizkien gauzak eta oparixoren bat sartzen dira. "Kutxan zer sartu daitekeen zehazten dute egitasmo sustatzaileek. Ideia jostailu bat jartzea da, baina baita beharrezkoak dituzten beste gauza batzuk: eskola materiala, higienerako gauzak, etb".

Abenduaren 3a baino lehen, Eliza ebanjelikoak kutxen bilketa egin eta Madrilera bidali zituzten. Bertan kutxak gainbegiratu eta beharra duten herrialde ezberdinetara bidaliko dituzte bertako haurrei Gabonetan irribarre bat eragiteko. "Bidalketa egin baino lehen ez dakigu nora joango diren kutxak. Gerora, erreportaje bat egiten du elkarteak zein herrialdeetako haurrek jaso dituzten jakinarazteko. Iaz Ukraina, Togo, Ekuatore Ginea eta Saharar kanpamentuetara bidali zituzten opariak".



AIZPURUA
Pinturak

- Pintura plastikoak bereziki
- Nahi duzun kolorea egingo dizugu momentuan

Eguberri on!

Zumaburuko industrialdea, Lasarte-Oria
Tel.: 943 36 21 53

Ongi igaro Eguberriak!!

AZPEITIA

Blas de Lezo, 1
20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 361870
Fax 943 362179
mueblesazpeitia@gmail.com
www.mueblesazpeitia.com

ANTONIO URRUZOLA
AROZTEGIA

Zorionak eta Eguberri on!!

ZURGINTZA eta EBANISTERIA

Etor zaitez erakusketa ikustera!

Asteasuain poligonoa 3. pabilioia, USURBIL
Tel./Faxa: 943 376415 • Mobila 687 845597



XIXUKO, MARI DOMINGI ETA OLENTZERO BADATOZI!

Abenduak 24, Lasarte-Oria



12:30/ TXOKOLATE JANA eta postontziaren inaugurazioa

16:45/ KALEJIRA Loidibarreneko frontoitik Okendora eta Olentzero eta Mari Domingiri ongi etorria

18:00/ EKITALDIA OKENDON:

Olentzero, Mari Domingi, Xixuko, Mari Teilatuko eta Porrotx

GUTUNEN JASOTZEA

18:30etatik aurrera: Ttiriki Tarraka musika eskola.

20:00etan/ Amaiera

*Eguraldi txarrarekin ekitaldia Loidibarren frontoian izango da



Izena emateko:
aisia@ttakun.eus 943.371448
edo Ttakunen bulegoan



AURRENTZAKO ABENDUAREN 27an!

ABONETAKO

ARKERA goaz! BEC-era



LH3-LH4-LH5-LH6koentzat

Goizeko 9:30etik 18:30ak arte

Bazkaria eta merienda eramán behar da.

27€ (Ttakuneko bazkideak 24€)



URTEKARIA, ABENDUAREN 28AN

Komertzio bat daukazu eta bertan parte hartu nahi duzu?

Jar zaitetz gurekin harremanetan!

publizitatea@ttakun.eus • 943 37 14 48 (106) • 646 82 44 66



AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA Olentzero eta Mari Domingiri. Lasarte-Oriako haur eta gazteok goizean Xixukoren postontzi berrian utzi ahalko dituzte haien eskutitzak. Arratsaldean, berriz, Olentzerorekin eta Mari Domingirekin egoteko aukera izango dute. Loidibarrengo pilotalekutik Okendora egingo dute bidea. Xixuko, Porrotx eta beste zenbait gonbidatu berezi ere izango dira. Loidibarrengo pilotalekuan, 17:00etan

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA


Stubby, un héroe muy especial
Igandea: 17:00.

SuperLopez
Igandea: 19:30.

Quién te cantará
Ostirala 28: 22:00.

El cascanueces y los cuatro reinos
Igandea 30: 17:00.

El veredicto. La Ley del menor.
Igandea 30: 19:30.



OSTIRALA 21

LASARTE-ORIA San Tomas

San Tomas azoka egingo da. Talo, gaztain eta sagardo dastaketa, elkarte eta Oriarte Intitutuko gazteen postuak, haurrentzako tailerrak eta txerria ikusgai izango da:

17:00etan, azokari hasiera emango zaio.

18:00etan, Xumela korua Okendotik atearko da erdialdeko kaleak alaitzera..

18:30ean, Ttiriki-Ttarrakaren doinuak dantzatzeko aukera izango da. Plaza dantza, Erketz Dantza Taldea eta Kukuka Antzerki eta Dantza eskolako kideak izango dira bertan.

Okendo plaza, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Escape room

Hiesa eta antisorgailuen erabilpena gai hartuta, Escape room-a egingo dute. *Neguko jarduerak* ekimenaren barruko ekintza.

Gaztelekua, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Kontzertuak

Herriko hainbat tabernek antolatuta Denbora, Bamms eta Bar Remigio taldeen emanaldia izango da. Ostein, Elektro Txaranga joango da tabernaz taberna.

REmeko karratua, 21:00etatik aurrera.

LARUNBATA 22

LASARTE-ORIA Haur parkea

Haur eta gazteek Gabonetako Haur Parkea irekiko da.

Ekintza berezia izango da egun

honetan: Nai Malabarista izango da, 18:45ean.

Michelin Udal Kirolgunea, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

LASARTE-ORIA Antzerkia

Karabansarai Produzioak *Ele! Lorca-Lauaxeta* antzerkia eskainiko du. Lauaxeta eta Lorca bi idazle, poeta ikoniko dira bere kulturetan. Bi muturretako ertzak badirudite ere, inork gutxi daki bien bitzita gurutzatu egin zela. Jon Maiak idatzitako obra honek bi poeten hitzak, musika, irudiak eta antzerkia erabiliko ditu hain desberdinak dirudigun kulturek eta herriek nola poesiaren eta artearen bidez bizitzaren balore sakonetan bat egin dezaketen adierazteko. Sarrera, 5,50 euro.

Manuel Lekuona, 20:00etan.

ASTELEHENA 24

LASARTE-ORIA Gabon errondak

Ohiturari jarraikiz, hainbat elkarte eta taldek Eguberri bezperako erronda egingo dute herritarrak alaituz:

11:00etan, Lasarte-Oriako ikastetxeetako haur eta gazteak, gurasoak kantuan aterako dira Ttiriki Ttarrakako kideek lagunduta, Jaizkibel plazatik abiatuko dira.

10:00etan, Zabaletako bizilagunak, berriz, abiatuko dira Antonio Blas plazatik. Auzoko etxe eta baserriak bisitatu ostean, 12:30ean auzoan aurten jaiotako haurrei ongi etorria egingo diete.

Erketz Euskal Dantza Taldea

baserrietatik joango da.

16:00atik aurrera, Alboka abesbatzak ere egingo du Gabonetako urteroko erronda.

Lasarte-Oria eta inguruak, egun osoan zehar.

LASARTE-ORIA Haur parkea

Haur eta gazteek Gabonetako Haur Parkean Olentzero eta Mari Domingiren bisita izango dute.

Michelin Udal Kirolgunea, 11:30ean eta 13:00etan.

LASARTE-ORIA Xixukoren postontzia

Xixukok postontzia jarriko du lehenengoz Okendo plazan. Honez gain, txokolate jana izango da haur eta gaztekoentzat. Okendo plaza, 12:30etan.

LASARTE-ORIA Harrera ekitaldia

Lasarte-Oriako kaleetatik kale jira egin eta Okendo plazan Olentzero, Mari Domingi eta Xixukoren etorrera jaialdia egingo da. Ondoren, haurren eskutitzak jasoko dituzte. Lasarte-Oriako kaleak, 17:00etan.

ASTEAZKENA 26

LASARTE-ORIA Haur antzerkia

Tomax, hamar urte haur antzerkiatekin gozatu ahalko dute haur eta gurasoek. Tomax pailazoak hamar urte betetzen ditu. Magia, abestiak, dantza... denetarik izango da antzerkian. 4 urtetik gorako haurrei zuzendua. Sarrera, 3,80 euro.

Manuel Lekuona, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Haur parkea

Haur eta gazteek Gabonetako Haur

Parkean ekintza berezia izango da: Ovidio magoa.

Michelin Udal Kirolgunea, 18:45ean.

OSTIRALA 28

LASARTE-ORIA Kontzertua

Eider Elorza abeslari donostiarrak Eguberrietako doinuak eskainiko ditu Eira Christmas Night emanaldian. Gospel eta gabon-kantetz osatutako egitarau ederra osatu du. *Leku guztietan kultura* ekimeneko ekintza. Goikale, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Elkarretaratzea

Hilabeteko azken ostirala izanik euskal presoan aldeko elkarretaratze ibiltaria egingo da. San Pedro elizaren aurrean, 20:00etan.

LARUNBATA 29

LASARTE-ORIA Sari banaketa

Danok Kidek antolatzen duen Jaiotzen Lehiaketako sari banaketa egingo da. Danok Kide egoitza, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Haur parkea

Haur eta gazteek Gabonetako Haur Parkean ekintza berezia izango da: Ipuinen Lapurra.

Michelin Udal Kirolgunea, 18:45ean.

LASARTE-ORIA Antzerkia

Black Harmony gospel singers taldeak espiritual beltzak eskainiko ditu. Antilletako eta Afrikako abeslariak osatutakoa taldeak

kalitate handiko emanaldia eskainiko du. Sarrera, 12 euro. Manuel Lekuona, 20:00etan.

ASTELEHENA 31

LASARTE-ORIA Haur parkea

Haur eta gazteek Gabonetako Haur Parkeari amaiera emateko kotilio txikia egingo da.

Michelin Udal Kirolgunea, 13:00etan.

LASARTE-ORIA Manifestazioa

Bada garaia; presoak kalera! lelopean manifestazioa egingo da herriko kaleetatik barrena. Okendo plaza, 19:00etan.

OSTIRALA 4

LASARTE-ORIA Errezitaldia

Musika eta ipuinak, bihotzetik bihotzera errezitaldia egingo da euskal presoan testuak oinarri. Poesia, antzerkia, musika... denetarik izango da. Harresi Guztien Gainetik taldeak antolatua.

Manuel Lekuona, 20:00etan.

LARUNBATA 5


LASARTE-ORIA Errege Magoak

Meltxor, Gaspar eta Baltasar Lasarte-Orian izango dira. Eguerdian, Errege Magoen laguntzaileek haurren eskutitzak jasoko dituzte. Arratsaldeko 16:00etan iritsiko dira herrira Errege Magoak, eta 17:30ak arte, Brigitarren Komentuko kaperan egongo dira eskutitzak jasotzen. Ondoren, 18:00etan, kabalgata hasiko da herriko kaleetan barrena. Lasarte-Oriako kaleak, 16:00etatik 20:30era.

KOMIKIA



ZORION AGURRAK




Arkaitz
Zorionak Arkaitz, zure aita eta familia guztiaren partetik! Asko maite zaitugu!




Nerea
Zorionak bihotza!!! Ondo pasa zure egunean eta jarraitu zoriontsu izaten irribarre polit horrekin. Asko maite zaitugu.



Izar
Poz handia da guretzat hazten, ikasten, margotzen zu ikustea. Zorionak. Muxu mordo bat.



Arkaitz
Zorionak zure osaba Rafa eta amaren partetik! Ongi igaro zure eguna!



Pau eta Aran
Gure bihotzeko txinpartak, zorionak eta muxu potolo bana!!



Markel
Zure 6. urtebetetzea maite zaitugun guztiakin ederki ospatzea opa dizugu! Zorionak guapo!!




Maddi
Zorionak Maddi!!!! Mila muxu potolo eta ondo pasa zure egunean. Maite zaitugu!!




Jokin
Zorionak nausi. Egun politte pasa deizule zure egunien. Zure Ttakuneko lankidien partetik.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 21




Larunbata, 22




Igandea, 23




Astelehena, 24



Asteartea, 25



Asteazkena, 26



AZOKA TXIKIA

SALEROSKETA

SALGAI

Sapphire 2 lau gurpildun motorra salgai. Harremanetarako, 664 609 596, Aintzane.

LANA

ESKARIA

Pertsona bat eskaintzen da edozein lanetarako: eraikuntza, baserri lanak... 643 787 637.

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Orduka, asteburuetan eta jaiegunetan zein ospitalean gaueko zaintzak egiteko prest. 606661048 / 943-404015

Lan egiteko prest nago, 14:00etatik aurrera edo asteburuetan. Haurrak edota adinekoak zaindu, garbiketa egin... Telefonoa: 688715958

Lan egiteko prest nago, interna gisa. Telefonoa: 687 355 095

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia.
12€ + BEZ
publizitatea@ttakun.eus
646.824466

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20€ + BEZ
publizitatea@ttakun.eus
646.824466

JAIOTAKOAK

Harri Vazquez Garcia. Abenduaren 13an.

HILDAKOAK

Jose Luis Vivar Rodriguez. Abenduaren 19an.

Jaime De Sosa Soroa. Abenduaren 17an.

Antonio Toribio Prieto. Abenduaren 15ean.

Manuel Fernandez Fernandez. Abenduaren 13an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 21	LASA
Larunbata, 22	GANDARIAS-URIBE
Igandea, 23	GANDARIAS-URIBE
Astelehena, 24	GANDARIAS-URIBE
Asteartea, 25	GANDARIAS-URIBE
Asteazkena, 26	ACHA-ORBEA
Osteguna, 27	URBISTONDO
Ostirala, 28	GIL
Larunbata, 29	URBISTONDO
Igandea, 30	URBISTONDO
Astelehena, 31	DE MIGUEL
Asteartea, 01	DE MIGUEL
Asteazkena, 02	GANDARIAS-URIBE
Osteguna, 03	ORUE
Ostirala, 04	DE MIGUEL
Larunbata, 05	ORUE
Igandea, 06	ORUE

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIAK: 22:00-9:00 ABENDURAINO

Castilla-Larburu: Urbietea kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41
URTARRILETIK AURRERA
Aldabe: Perkaiztegi kalea 8 (Antziola), Hernani/ 943 33 60 22

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali **FARMA 215800** zenbakira.

Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERRI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112



GUTUNAK

Felix Sarasola, gure "Felito"**PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS PAILAZO TALDEA**

Felix Sarasola, gure Felito joan zaigu! Eta negarrez gaude pailazoak ere... Sudurgorrioren laguna, azeituna, babarruna...bihotz handia, eskuzabala, goxoa, sentibera eta irrizalea beti zena joan zaigu.

Maitatua Usurbilen eta maitatua Lasarte Orián, gure herrian! Oso gazte ginela ezagutu genuen, sudurra gorritu gabe genuela oraindik.. Gu saltsa guztietan murgilduta genbiltzala, jakin genuen Olentzero itxurako sukaldari bat iritsi zela herrira. Txartel txokon hasieran, Txitxardin Beltza zabaldu zuen gero... Euskara, kultura, presoak,... gaia edozein izanda ere errifak ateratzeko saria seguru genuen Felixenean; "trankilito...lau afari jarri, eta zatozte berriz behar duzuenen..."

Berehala deskubritu genuen bere arrakastaren sekretua; Felitoren jatetxean sartuz gero, sabelaz gain, bihotza beteta ateratzen zen edozein! Gure adiskidetasuna betirako izango zela konturatu ginen ezagutu orduko. "Trankilito...", unean unekoa gozatzen

zekien Felixek beti, eta berea zuen errezeta hori ikasi genion pailazook. "Aspalditik gatoz, eta urrutira goaz...!" Gelditu gabe, topera, baina astiro bizitzearen errezeta da hori, egun eta une bakoitzari bere zorion zukua ateratzen diona; goizero ohetik altxa eta ahoan irribarre bat margotuta, jarrera eraikitzailea, baikorra eta errespetuzalea maite duenarena.

Zalaparta handirik atera gabe, mundu berri bat koloreztatzen zuen Felixek. Eta orain... malkotan gaude zure lagunak Euskal Herrian eta malkotan izango dira Kuban. Han ere, iritsi orduko, euskaldun zein kubatarren artean erein baitzenuen zure maitasuna. Enbaxadore handi bat galdu du Euskal Herriak. Habanan Aberri Egunak ez dira aurrerantzean berdinak izango zu gabe Felix, baina gure bihotzean, buruan eta eskuetan izango zaitugu beti. Sentitu, pentsatu, ekin... beti elkarrekin!

Aupa Felix, gure Felito... trankilito!

OHARRAK

Oriarte institutuko eskertza

Abenduaren 15ean Landaberri ikastolako jaialdia ospatu zen eta Oriarte institutuko DBH 4ko gazteek eta gurasoek parte hartu zuten (aspaldiko ohiturei jarraituz). Horregatik parte honen bidez eskerrak eman nahi dizkiete lagundu dieten guztiei, "bestela hau guztia aurrera eramatea ez zelako posible izango. Eskerririk asko guztioi!".

Iñaki Pikabea Landaberriko atezaina, Landaberri ikastetxea, Oriarte institutua, Landaberri Guraso Elkarte, Oriartekide Guraso Elkarte, Lasarteko Udala, Iñaki Urruzola DJ, Balerdi harategia, Larrañaga harategia, Etkezaretza harategia, Goxogi okindegia, Labe Goxo okindegia, talo irakasleak, Andoni Loinaz, Urpe arrandegia, Ogi Berri okindegia, BM, Eroski eta Libreria Maite.

Kiroldegia itxita

Lasarte-Oriako Udal Kirol Zerbitzuak jakitera ematen du, abenduaren 24 eta 25ean Kirol Instalazioak itxita egongo direla.

Liburutegia itxita

Gabonak direla eta, jai egunetaz gain, Udal liburutegia abenduaren 24, 29, 31 eta urtarrilaren 5ean itxita egongo da.

Odol ateratzearen egun aldaketa

Gabonak direla eta, odol emaileen hitzordua egunez aldatuko da hilabete honetan. Asteazkena, abenduaren 26an, eman ahal

izango da odola Osasun Zentroan, 17:30etik 20:30era. Anima zaitzete, odola ordezkazezina da eta odol falta dago!

San Silvestre boluntario bila

Iaz parte hartu zuten 90 boluntarioei eskerrak eman dizkie San Silvestre lasterketako antolakuntzak. Era berean, herritarrak animatu nahi ditu aurtengo edizioan laguntzera. "Boluntario-lana erraza da eta denbora-tarte laburrekoa. Zure laguntza oso garrantzitsua da eta talde-lan ederrean parte hartzeko aukera izan dezakezu. Animatu eta jar zaitzete gurekin harremanetan horretarako dugun San Silvestre Lasarte-Oria facebook-eko perfilean edo info@sansilvestrelasarteoria.com".

Korrikako postua San Tomasetan

Gaur, abenduaren 21ean, San Tomas azokan, 21. KORRIKAKo arropen postua jarriko du Lasarte-Oriako Munterri-AEK euskaltegiak, 18:00tik 20:00ra, Okendo enparantzan.

Ostadarrek hasi du bazkietza kanpaina

2019. urteko bazkietza kanpaina hasi du Ostadar SKTk. Hainbat kuota dituzte, adinaren arabera. Kirol proiektua laguntzen dutenek hainbat abantaila eta deskontu dituzte Ostadarren ekitaldietan. Informazio gehiago <http://www.ostadarskt.eus/> webgunean.

LUIS CAR
autobusak

2019 zoriontsua opa dizuegu!

- Espainiako eta nazioarteko garraio zerbitzuak
- Enpresentzako, ikastetxeentzako... zerbitzuak
- 15 plazako mikrobusak
- 55 plazako autobusak
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autobusak

Uzturre plaza 1, LASARTE-ORIA • Tel./Faxa: 943 36 63 16 • Mugikorra: 629 461 897 • luisarbus@hotmail.com

ERAIKUNTZA BERRIA SALMENTAN! ZABALETA BERRIN

Hitzartutako etxebizitzak. Baldintzarik gabe.

Donostiatik
6' tara soilik

DONOSTIALDEKO
PREZIORIK
ONENA



3 LOGELA + GARAJEA
+ TRASTELEKUA

218.500€ tik
+BEZa

250 familia baino gehiagok gozatzen dute
Lasarteko **INGURU NATURAL** paregabe honetan.

INFORMA ZAITEZ

943 36 89 42
www.zabaletaberri.es

Arrazoi tekniko, juridiko edo komertzialengatik informazio hau aldatua izan daiteke.

residencial

zabaleta (berri
bizigunea

